OBRAK PROZEDURA IREKI ARRUNTAREN BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRI-EREDUA

I. ZATIA

PROZEDURA IREKIETAN LIZITATZEA, ADJUDIKATZEA ETA KONTRATUA FORMALIZATZEA

I. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

1. klausula. Kontratuaren objektua ……5

2. klausula. Araubide juridikoa……..…5

3. klausula. 3. klausula. Informazioa fiskalitateaz, ingurumenaz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz, enplegua babesteaz, lan-baldintzez, lan-arriskuen prebentzioaz eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratzeaz, desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharraz, eta datuen babesaz……..……6

4. klausula. Kontratuko alderdiak……..……6

a) Administrazio kontratatzailea

b) Kontratista

5. klausula. Kontratuaren balio zenbatetsia eta kontratuaren lizitazio-aurrekontua……..…..7

6. klausula. Aurrekontu-kreditua egotea……..……7

7. klausula. Kontratuaren iraupena eta luzapena……..……7

8. klausula. Kontratazio-espedientea izapidetzea……..…..7

II. LIZITAZIOA.

9. klausula. Adjudikazio-prozedura……..……..……8

10. klausula. Lizitazioaren publizitatea……..8

11. klausula. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna..8

12. klausula. Parte hartzeko baldintzak……..……..8

13. klausula. Aurkezteko epea, tokia eta modua……..……..9

14. klausula. Aurkeztu beharreko dokumentazioa……..9

15. klausula. Baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak adjudikazio-proposamenaren aurretik aurkeztea……12

16. klausula. Enpresa lizitatzailearen prozedurako ondorengotza……..12

III. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA KONTRATAZIO-MAHAIAREN JARDUNA.

17. klausula. Kontratazio-mahaia……12

18. klausula. Kontratazio-mahaiaren jarduera……..…..13

a) B gutun-azala irekitzea

b) C gutun-azala jendaurrean irekitzea

c) Eskaintzen ebaluazioa eta adjudikazio-proposamena

19. klausula. Balio anormalak edo neurrigabeak dituzten eskaintzak……....14

20. klausula. Berdinketa ebazteko irizpideak……15

IV. ESKAINTZEN SAILKAPENA, ADJUDIKAZIOA ETA KONTRATUA FORMALIZATZEA

21. klausula. Eskaintzak sailkatzea……15

22. klausula. Adjudikazioaren aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioa……15

23. klausula. Adjudikazioa……17

24. klausula. Kontratua burutzea……17

25. klausula. Kontratua formalizatzea……17

26. klausula. Kontratua formalizatzeko epea……..18

27. klausula. Kontratua ez formalizatzearen ondoreak……18

28. klausula. Aseguruak..... 18

II. ZATIA

OBRA-KONTRATUEN ONDOREAK ETA OBRA-KONTRATUAK BETETZEA ETA AZKENTZEA

KONTRATUA BETEARAZTEA

29. klausula. Zuinketa egiaztatzea……..……19

30. klausula. Lan-programa..... 20

31. klausula. Osasun- eta segurtasun-plana……20

32. klausula. Obra-seinaleak……20

33. klausula. Obra-zuzendaritza eta kontratistaren ordezkaria……..21

34. klausula. Kontratuaren objektua diren lanen arduradun gainbegiralea……20

35. klausula. Kontratistaren betebeharrak……21

36. klausula. Kontratistaren konturako gastu eta zergak.....22

37. klausula. Epeak betetzea.....22

38. klausula. Berandutzeagatiko zigorrak.....23

39. klausula. 39. klausula. Betetze akastunagatiko zigorrak.....23

40. klausula. Kontratistari egin beharreko ordainketak.....23

41. klausula. Faktura elektronikoa.....24

42. klausula. Prezioak berrikustea.....24

43. klausula. Lan-arloko betebeharrak eta betebehar sozialak.....24

44. klausula. Kontratua betearazteko baldintza bereziak.....25

45. klausula. Konfidentzialtasuna.....27

VI. KONTRATUAK ALDATZEA ETA ETETEA

46. klausula. Kontratua aldatzea.....28

47. klausula. Obrak etetea.....29

VII. KONTRATUEN LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

48. klausula. Kontratuak lagatzea.....30

49. klausula. Azpikontratatzea.....31

VIII.- KONTRATUA AZKENTZEA

50. klausula. Kontratua betetzea.....32

51. klausula. Obrak hartzea.....32

52. klausula. Obra-bukaeraren ziurtagiria.....32

53. klausula. Obra likidatzea.....32

54. klausula. Berme-epea.....32

55. klausula. Behin betiko bermea itzultzea edo ezereztea.....33

56. klausula. Kontratua suntsiaraztea.....33

IX. DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO NEURRI TEKNIKOAK, ADMINISTRATIBOAK ETA ANTOLAMENDUKOAK

57. klausula. Datuak babestea……33

ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK, ERREKURTSOAK ETA DEUSEZTATZE-KAUSA

58. klausula. Administrazioaren prerrogatibak……36

59. klausula. Kontratazio-arloko errekurtso berezia……36

60. klausula. Berraztertze-errekurtsoa……37

I. ZATIA. PROZEDURA IREKIETAN KONTRATUA LIZITATZEA, ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

I. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

1. klausula. **Kontratuaren objektua.**

Baldintza-agiriko karatulan zehazten den prestazioa ematea da kontratu honen objektua.

Prestazio hori baldintza-agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian ezarritako baldintzen arabera eman beharko da; agiri bi horiek, hain zuzen ere, kontratuaren parte dira.

Baldintza-agiriko karatulan hala baimentzen bada, lizitatzaileek aukera izango dute adierazitako betekizun eta baldintzei dagozkien aldaerak aurkezteko, betiere bertan zehazten den gehieneko kopurua gainditu gabe.

Kontratua sortatan zatitzen bada, sorta bakoitzaren objektua unitate funtzional bat da, modu independentean egiteko modukoa dena. Sorta bakoitza bere aldetik adjudikatu ahal izango da.

2. klausula. **Araubide juridikoa.**

Kontratuak administrazio-izaera du, eta honako hauek arautuko dute:

- Baldintza-agiri honetan ezarritako klausulak (baldintza-agiriko karatulako zehaztapenek osatzen dituzte klausula horiek) eta preskripzio teknikoen agirian ezarritakoak.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL).
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzkoa.
- Kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, bai estatu-mailakoa, bai autonomia-erkidegoarena, bai toki-mailakoa, tokiko mailan aplikatu behar badira.
- Horien ordezko modura, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Era berean, kontratuak, edozein kasutan ere, Bilboko Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Planean ezarritako neurri eta betebeharrak bete beharko ditu. Plan hori Bilboko Udalak onartu zuen, Gobernu Batzarrak 2022ko martxoaren 16an hartutako erabakiaren bidez.

Enpresaburuak ez badaki zer agintzen den kontratuaren zehaztasunetan, kontratuari erantsitako dokumentuetan edo hitzartutakoa betearazteko Administrazioak ematen dituen jarraibide, baldintza-agiri edota zeinahi eratako arauetan, ez jakite horrek ez du salbuetsiko betetzeko betebeharretik.

Baldintza-agiri honetan ezarritakoa bat ez badator preskripzio teknikoen agirian ezarritakoarekin, baldintza-agiri honetan xedatutakoak izango du balioa bestearen gainetik, salbu eta izaera teknikoa duten gai eta zehaztapenetan.

3. klausula. **Informazioa fiskalitateaz, ingurumenaz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz, enplegua babesteaz, lan-baldintzez, lan-arriskuen prebentzioaz eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratzeaz, desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharraz, eta datuen babesaz eta lehiaren babesaz (129. art.).**

Honako organismo hauetan eskura daiteke informazioa aipatzen diren gaietan indarrean dauden betebehar eta xedapenei buruz:

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa.
- Fiskalitatea: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako eta Nafarroako Foru Komunitateko foru-ogasunak, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.
- Ingurumenaren babesa: IHOBE sozietate publikoa.
- Enpleguaren babesa, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
- Desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea, eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra: LANBIDE organismo autonomoa.
- Datuen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.
- Lehiaren Defentsa: Lehiaren Euskal Agintaritza.

4. klausula. Kontratuko alderdiak.

a) Administrazio kontratatzailea.

Kontratatzeko eskumena.- Kontratazio-organoa baldintza-agiri honen karatulan adierazitakoa izango da.

Kontratuaren arduraduna.- Baldintza-agiri honen karatulan adierazitakoa —halakorik adierazten badu— edo kontratazio-organoak kontratua betearazteko erabakitzen duena.

Kontratzailearen profila.- Baldintza-agiri honen karatulan adierazitakoa.

Kontratzailearen profilera erakundearen webgunetik sartu behar da. Bertan, kontratazio-organoaren kontratu-jarduerari buruzko datu eta informazioak bildu dira.

B) Kontratista.

Kontratatzeko gaitasuna.- Bilboko Udalarekin pertsona natural edo juridiko guztiek kontratatu ahal izango dute, espainiarrak zein atzerritarrak izan, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekuren baten eraginpean ez badaude eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala dituztela egiaztatzen badute edo, SPKLk hala eskatzen duen kasuetan, behar bezala sailkatuta badaude. Enpresaburuek, halaber, enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, kontratuaren objektua den jarduera edo prestazioa gauzatzeko exijitzekoa bada.

a) Pertsona juridikoak: kontratuak adjudikatu ahal izango zaizkie kontratu horien bidez eman beharreko prestazioak bat badatoz estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuekin, xedearekin edo jarduera-eremuarekin.

b) Europar Batasuneko estatu kidetako enpresaburu ez-espainiarrak: kontratatzeko gaitasuna izango dute baldin eta enpresak finkatuta dauden estatuko legeen arabera gaituta badaude dena delako prestazioa emateko.

c) Enpresaburuen elkarteak: prestazio hori emateko aldi baterako osatzen diren enpresaburuen elkarteek egin ahal izango dituzte kontratuak Bilboko Udalarekin, eta enpresaburuek betebehar solidarioa hartuko dute, eta horretarako ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea harik eta kontratua adjudikatzen zaien arte. Era berean, elkarteko ordezkari edo

ahalordedun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko besteko ahalordeak izango dituena kontratua amaitu arte. Hala ere, enpresek ahalorde mankomunatuak eman ahal izango dituzte, kopuru handiak kobratu eta ordaintzeko.

Aldi baterako enpresa-elkarte horiek kontratua amaitzen den arte iraungo dute.

5. klausula. Kontratuaren balio zenbatetsia eta kontratuaren lizitazio-aurrekontua.

Publizitatea eta adjudikazio-prozedura zehazte aldera, kontratu honetarako zenbatetsitako balioa, Administrazioak jasan beharreko BEZa sartu gabe, karatulan agertzen dena da.

Kontratuaren lizitazio-aurrekontua bat dator Administrazioak kontratu honetan egingo duen gehieneko gastu-aurrekontuarekin, eta karatulan agertzen dena da (BEZa barne).

Lizitazio-tasa, zeina kontuan hartuko baita eskaintzak egiteko eta erabakigarria izango baita zenbateko handiagoko edozein eskaintza baztertzeko, karatulan agertzen dena da. Hobekuntza beheranzkoa izango da, zenbateko zehatz eta jakin bat kontsignatuta.

Prezioa prestazioaren osagaiei edo entregatzen edo gauzatzen diren prestazioaren unitateei dagozkien prezio unitarioen arabera zehazten bada, Administrazioak beretzat gordeko du kontratuaren urteko gastuaren gehieneko aurrekontuaren % 20 baino gutxiago aldatzeko aukera, gastuari dagokion aurrekontu-doikuntza onartuz.

6. klausula. Aurrekontu-kreditua egotea.

Behar besteko kreditua dago kontratu hau betetzeagatik Administrazioak izango dituen betebehar ekonomikoei aurre egiteko, eta aurrekontu-kontsignazioa baldintza-agiri honen karatulan ezarritakoa da.

Aldez aurreko izapidetzea dagokien kontratazio-espedienteetan, adjudikazioak baldintza etengarri bat izango du, alegia, dagokion ekitaldian kreditu egoki eta nahikoa egotea.

7. klausula. Kontratuaren iraupena.

Kontratuaren gehieneko iraupen- edo betearazpen-epea baldintza-agiri honen karatulan zehaztutakoa izango da.

8. klausula. Kontratazio-espedientea izapidetzea.

Kontratazio-espedientea izapidetzeko, prozedura arrunta, presakoa edo larrialdikoa erabiliko da, baldintza-agiri honen karatulan ezarritakoari jarraiturik.

Presakoa.- Presakotzat jotzen diren espedienteak espediente arrunten prozedura berari jarraituz izapidetuko dira, baina berezitasun batzuk egongo dira: (119. art.)

a) Presako espedienteek lehentasuna izango dute izapideetan parte hartzen duten organoek bideratu ditzaten; izan ere, organo horiek bost eguneko epea izango dute dagozkien txostenak eta izapideak egiteko.

b) Adjudikazio-prozedura hastea erabaki ondoren, erdira ekarriko dira kontratua lizitatu, adjudikatu eta formalizatzeko SPKLn ezarritako epeak, 119.2.b) artikuluan adierazitakoak izan ezik.

c) Administrazioak erabaki ahal izango du kontratua betearazten has dadila, kontratua formalizatuta egon ez arren, baldin eta, hala badagokio, behar den bermea eratu bada.

d) Kontratua gauzatzen hasteko epea ezin izango da hilabetekoa baino luzeagoa izan, kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita. Epe hori gainditu gero, kontratua suntsiarazi ahal izango da, atzerapena Bilboko Udalarekin eta kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gertatzen denean izan ezik, eta hala dela azaltzen bada dagokion ebazpen arrazoituan.

Larrialdikoa.- Larrialdiko izapidetzearekin kalifikatutako espedienteek salbuespenezko araubide hau izango dute:

Kontratazio-organoak agin dezake, administrazio-espedientea izapidetzeko beharrik izan gabe, gertatutakoa konpontzeko edo gerora sortutako beharrizanari erantzuteko behar den guztia exekuta

dadila, edota libreki kontrata dezake objektua, osorik edo partez, SPKLn ezarritako betebehar formalen pean egon gabe, eta are kreditu nahikoa izateko betebeharra bete gabe ere. Dagokion erabakiari behar den kreditu-atxikipena erantsi beharko zaio, edo, bestela, kreditua aldatzeko espedientea hasita dagoela justifikatzeko dokumentazioa.

Prestazioak gauzatzen hasteko epea ez da hilabete baino luzeagoa izango, aurreko paragrafoan aurreikusitako erabakia onartzen denetik kontatzen hasita. Epe hori gainditu ez gero, prozedura arrunta izapidetu beharko da prestazio horiek kontratatzeko.

II. LIZITAZIOA

9. klausula. Adjudikazio-prozedura.

Kontratu hau prozedura irekiaren bidez adjudikatuko da, eta adjudikazio-irizpide bakar bati edo hainbat adjudikazio-irizpideri jarraituz gauzatuko da, baldintza-agiri honen karatulan xedatutakoaren arabera.

Prozedura irekian, interesa duen enpresaburu orok aurkeztu ahal izango du proposamenen bat, eta kontratuaren baldintzak ezingo dira lizitatzaileekin negoziatu.

10. klausula. Lizitazioaren publizitatea:

Lizitazio-iragarkia Bilboko Udalaren kontratatzailearen profilean, Udalaren webgunean (www.bilbao.eus) eta Euskadiko Kontratazio Plataforman argitaratuko da.

Euskadiko Kontratazio Plataforman kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa emango da, administrazio-klausula partikularren agiriak eta dokumentazio osagarria barne, hala badagokio.

Xedatutakoaren arabera erregulazio harmonizatuko kontratuak badira, lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere iragarri beharko da, SPKLren 135. artikuluaren arabera.

11. klausula. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna.

Kontratazio-organoak berdintasunez eta diskriminaziorik gabe tratatuko ditu lizitatzaileak, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo du.

Ezin izango da mugatu kontratazioan parte hartzea forma juridikoagatik edo irabazi-asmoagatik, salbu eta, karatularen arabera, laugarren xedapen gehigarrian zehaztutako entitateentzat erreserbatutako kontratuak badira.

Hargatik eragotzi gabe adjudikazioaren publizitateaz eta lizitatzaileei eman beharreko informazioaz SPKLn xedatzen dena, kontratazio-organoek ezin izango dute zabaldu enpresaburuek eskaintza aurkeztean konfidentzialtzat jotako informaziorik.

Konfidentzialak dira, bereziki, sekretu teknikoak edo komertzialak eta eskaintzen alderdi konfidentzialak, bai eta beste edozein informazio ere, horien edukia lehia faltsutzeko erabil badaiteke, dela lizitazio-prozedura honetan, dela geroagoko beste batzuetan.

Kontratazio-organoak ezin izango du haien baimenik gabe informazio hori zabaldu.

12. klausula. Parte hartzeko baldintzak.

- Pertsona fisiko edo juridiko guztiek aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak kontratuaren objektuari, espainiarrak zein atzerritarrak izan, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala dituztela egiaztatzen badute edo, hala badagokio, haien helburuak kontratuaren objektuarekin zerikusi zuzena badu, bakoitzaren estatutuetan edo sortze-arauetan jasotakoaren arabera, eta hori behar bezala egiaztatzen badute, eta kontratua behar bezala betearazteko behar beste elementu pertsonal eta material dituen antolaketa bat badute.

- Baldin eta kontratua erreserbatuta badago gizarteratzeko enplegu zentro berezientzat eta laneratzeko enpresentzat, edota enplegu babestuko programen esparruan sartuta badago SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, edota zenbait erakunderentzat erreserbatuta badago

SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, parte hartu ahal izateko beharrezkoa izango da, gainera, legez ezarritako baldintzak ere betetzea.

-Ezin izango dute lizitazioan parte hartu kontratazio honen zehaztapen teknikoak egiten parte hartu duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia askea mugatu badezake edo pribilegiozko tratua eragin badezake gainerako enpresa lizitatzaileekiko.

-Kontratuen objektua baldin bada edozein kontratu betearazten dela zaindu, gainbegiratu, kontrolatu edo zuzentzea edota segurtasun- eta osasun-arloko koordinazioa egitea, ezingo izango zaizkie adjudikatu dagozkien kontratuen adjudikaziodun diren enpresa berei, ez eta 70. artikuluan ezarritako zentzuan enpresa horiei lotutako enpresei ere.

-Proposamenak aurkezte hutsarekin ulertuko da lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honetako klausulak, karatulako zehaztapenak eta gainerako kontratu-dokumentuak, batere salbuespenik gabe, eta erantzukizunpeko adierazpena aurkezte hutsarekin orobat ulertuko da aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta prestazioa kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.

-Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ez bere aldetik, ez aldi baterako enpresa-elkarte bateko kide gisa, eta proposamenen bat bere aldetik aurkezten duenak ezin izango du proposamen bat izenpetu beste batzuekin eratutako aldi baterako elkarte baten barruan. Arau horiek urratzen baditu, bere eskaera eta eskaintza guztiak baztertuko dira.

13. **klausula.** Aurkezteko epea, tokia eta modua.

Epea: eskaintzak aurkezteko epea kontratatzailearen profilean agertzen dena da.

Tokia: proposamenak elektronikoki aurkeztuko dira (ikus karatulan ageri den LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN ERANSKINA).

Modua: HIRU gutun-azal itxiren bidez (A, B eta C)

A GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.

B GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK (formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak ezartzen ez diren prozedura irekietan izan ezik)

C GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

14. **klausula. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

A GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

1. KAEB DOKUMENTUA. Kontratazio-agiri europar bakarra (KAEB) aurkeztuko da, hau da, enpresa interesdunaren adierazpen formala eta eguneratua. Dokumentu hori Kontratazio-agiri europar bakarraren formulario normalizatua ezartzen duen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Erregelamenduaren bidez onartu zen.

Baldintza-agiri honen XV. eranskinean zehaztu da zein diren hura betetzeko jarraibideak.

2. BILBOKO UDALARI AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, aldez aurreko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duena. Erantzukizunpeko adierazpen hori profilean argitaratutako ereduaren arabera egin behar da, bertan eskatutako datuak emanez.

3. Enpresaburuen elkarte bat eratuz gero: ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN AGIRIA (eranskinean agertzen den ereduaren arabera egina); agiri horretan zehaztuko da zein diren izenpetzaileen izenak eta inguruabarrak, zenbatekoa duen haietako bakoitzak partaidetza-ehunekoa eta kontratua indarrean dagoen bitartean zer pertsonak izango duen Administrazioaren aurrean guztien erabateko ordezkaritza.

4. Eskatutako ENPRESA- EDO LANBIDE-GAIKUNTZA egiaztatzen duen dokumentua, baldin eta karatulan enpresa- edo lanbide-gaikuntza eskatzen bada.

ABEEaren kasuan, enpresa bakoitzak EKAB agiria eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko ditu.

Kaudimena kanpoko baliabideekin integratzen bada, kanpoko enpresa bakoitzak EKAB agiria aurkeztuko du (75 SPKL)

* Aurreko paragrafoetan aipatutako gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko eskakizun guztiak eskaintzak aurkezteko azken egunerako bete beharko dira, eta kontratua burutzen den unean ere iraun beharko dute.

B GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA

(formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak ezartzen ez dituzten prozedura irekien kasuan ez da aurkeztu behar)

Lizitatzaileek behar diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzte eskaintzak baloratu eta haztatu ahal izan daitezen karatulan ezarritako formulen bidez zenbakarriak ez diren formulak aplikatuz eskaintzak baloratzeko irizpideen arabera.

Gutun-azal horretan inola ere ez da sartu behar ez eskaintza ekonomikorik, ez eskaintza ekonomikoko dokumentu garrantzitsurik, ez formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideei dagokien elementurik.

C GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA

Gutun-azal horretan dokumentu hauek sartuko dira:

1. ESKAINTZA EKONOMIKOA: Proposamen ekonomikoa, administrazio-klausula partikularren agiriaren eranskineko ereduaren arabera egingo dena:

- Proposamen bat bakarrik izango du, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatu eta baldintza-agiri honen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera idatziko dena.
- Eskaintza ekonomikoak partida independente gisa adieraziko du jasanarazi beharreko BEZa.
- Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratuaren lizitazio-aurrekontua.
- Ulertuko da, ondorio guztietarako, eskainitako prezioan kontzeptu guztiak sartuta daudela, gastuak, tasak eta zeinahi arlo fiskaletako arielak eta kontratistaren etekin industriala barne direla, baina ez BEZa, hura partida independente gisa jasanaraziko baita.

Proposamenak ez dira onartuko baldin eta:

- Kontraesanik, omisiorik, akatsik edo zirriborrorik badute eta horren ondorioz ezin bada argi eta garbi jakin zer jotzen duen Administrazioak funtsezkotzat eskaintza aintzat hartzeko.
- Bat ez badatoz aztertu eta onartzen den dokumentazioarekin.
- Gehieneko lizitazio-tasa gainditzen badute.
- Ageriko akatsik badute proposamenaren zenbatekoan.
- Funtsezko aldaketarik egiten badiote baldintza-agiri honen I. eranskinean ezarritako proposamen-ereduari.
- Lizitatzaileak onartzen badu proposamenak akatsen bat edo funsgabetasunen bat duela eta horren ondorioz bideraezina dela.

Letraz adierazitako eskaintza digituz adierazitakoarekin bat ez badator, letraz adierazitako zenbatekoak izango du balioa, eta ez besteak (salbuespena da zenbateko horrek lizitazio-tasa gainditzen duenean), betiere kontratazio-mahaiak ez badu beste jarrera bat hartzen dokumentazioaren azterketatik eratorritako arrazoizko irizpideak erabiliz.

Ohartarazten da eskaintza ekonomikoko kontu-akatsak zuzendu egingo direla.

Kontraesanik edo akatsik egiten bada eta hori ez bada eskaintzak baztertzeko motiboa, kontratazio-mahaiak arrazoizko irizpideetan oinarriturik erabakiko du zer jarrera hartuko duen, kontuan izanik administrazioarentzat zer den onuragarriena.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina, karatulan baimentzen bada, baimendu beste irtenbide-aldaera sartu ahal izango ditu, eta, horren ondorioz, eskaintza ekonomikoen aldaerak ere izango dira.

2. Karatulan adierazitako ERANSKINAK ETA/edo DOKUMENTUAK, formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideak baloratzeko behar direnak.

DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENARI BURUZKO OHARRAK.

KONFIDENTZIALTASUNA

Lizitatzaileek konfidentzialtzat jotzen badute aurkeztuko duten dokumenturen bat, izendapen esplizitu bat egin beharko dute —A gutun-azalean aurkeztu beharreko erantzukizunpeko adierazpena bete beharko dute horretarako—, eta konfidentzialtzat jotzen duten dokumentuan bertan adieraziko dute hori argi eta garbi, dela gainean inprimaturik, dela orri-bazterrean idatzirik. Ez bada hala izendatzen, dokumentua ez da konfidentzialtzat hartuko.

Eskaintza ekonomikoa ezin izango da konfidentzialtzat jo. Eskaintza ekonomikoa konfidentziala dela esan bada, eskaintzarik egin ez dela ondorioztatuko da.

Konfidentzialtasun-adierazpena ezin izango da lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazio osora zabaldu, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzen duten agiri guztietara ere. Kasu horretan, edo adierazpen hori behar bezala dimentsionatzen ez den kasuan, kontratazio-organoak erabakiko du, modu arrazoituan, zer datu eta/edo dokumentu jo behar diren konfidentzialtzat. Kontratazio-organoak berdin jokatuko du konfidentzialtasun-adierazpenean ez badago arrazoi egokirik eta behar bezala oinarritutakorik lizitatzaileak konfidentzialtzat jotako informazioa halakotzat jotzeko.

Lizitatzaileak ez badu berariaz adierazten daturen edo dokumenturen bat konfidentziala dela, ulertuko da aurkeztutako datu edo dokumentuetatik bat bera ere ez dela konfidentziala, hargatik eragotzi gabe, salbuespenez eta modu arrazoituan, kontratazio-organoak konfidentzialtzat jotzea hala kalifikatu ez den informazioren bat, enpresa-interes legitimoak babesteko.

Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren, ezin izango dira konfidentzialtzat jo aurkezteko unean konfidentzialtzat jo ez diren datuak.

Adjudikazio-prozeduran zehar hasierako eskaintzaren parte ez zen dokumentazioa aurkezten bada, dokumentazio berri hori osatzen duten datuak edo dokumentuak konfidentzialtzat jo ahal izango dira, klausula honen aurreko paragrafoetan deskribatutako baldintzen arabera.

DOKUMENTAZIOAREN EGIAZKOTASUNA.

Administrazioak egiaztatu ahal izango du, hala kontratua adjudikatu aurretik nola ondoren, gutun-azaletan sartutako dokumentuen edukia egiazkoa ote den, bai eta, hala badagokio, karatulan adjudikazio-irizpide gisa agertzen direnena ere. Enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak badira, hori kontratuaren deuseztasun-kausa izan daiteke, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetze baten ondoriozkoa, eta behin betiko bermea galdu ahal izango du horregatik, edota, halakorik eratu ez badu edo eratzeko eskatu ez bazaio, berme horren balioa ordaindu beharko du. Gainera, Administrazioari eragindako kalte eta galerak handiagoak badira konfiskatutako bermearen zenbatekoa baino, kalte-ordaina eman beharko dio Administrazioari.

AURREZ AURRE AURKEZTUTAKO ELEMENTU FISIKOAK ITZULTZEA/SUNTSITZEA

Errekurtsoak aurkezteko epeak amaitu eta errekurtsorik jarri ez bada, interesdunen eskura utziko dira aurkeztu dituzten elementu fisikoak.

Adjudikazioa eman ez zaien eta elementu fisiko horiek berreskuratu nahi dituzten lizitatzaileek eskaera

helarazi beharko diote idatziz Bilboko Udaleko Kontratazio Bulegoari, espediente-zenbakia eta elementu fisiko horiek jasotzera joango den pertsona fisikoa identifikatzeko. Baina adjudikazioa egiten denetik hiru hilabeteko epea igarotakoan, Administrazioak erabaki ahal izango du, elementu horiek bertatik eraman ez badira, suntsitu daitezela.

15. **klausula. Baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak adjudikazio-proposamenaren aurretik aurkeztea.**

Adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruz arrazoizko zalantzak daudela edo prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa dela uste bada, lizitatzaileei eskatu ahal izango zaie, kontratazio-mahaiak adjudikazio-proposamena onartu aurreko edozein unetan, legedian eta kontratatzeko baldintza-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko.

Kasu horretan, errekerimendua egin zaien lizitatzaileek eman zaien epearen barruan aurkeztu beharko dute eskatutako dokumentazioa; epe hori, gehienez ere, hamar egun baliodun izango da. Baldin eta konpon daitekeen akats edo omisioren bat ikusten badu aztertutako dokumentazioan, gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango da akatsa zuzentzeko.

Epe horretan aurkezten ez bada beharrezko dokumentazioa aurkezten, lizitatzailea prozeduratik kanpo geratuko da.

16. klausula. Enpresa lizitatzailearen prozedurako ondorengotza.

Prozedura izapidetzen den bitartean, eta kontratua formalizatu baino lehen, lizitatzaile edo hautagai den enpresa baten ondarea beste batenarekin edo batzuenarekin batzen bada, zatitzen bada edo eskualdatzen bada, prozeduran haren ondorengo izango dira sozietate xurgatzaileak, bat-egitetik sortu direnak, zatiketaren onuradun izan direnak, edo ondarea edo dena delako jarduera-adarra eskuratu dutenak, betiere, horretarako gaitasuna izanik, kontratatzeko debekurik ez duela eta kaudimena eta gaitasuna nahiz sailkapena badituela egiaztatzen badu, adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko administrazio-klausula zehatzen pleguan eskatutako baldintzak beteta.

III. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA KONTRATAZIO-MAHAIAREN JARDUNA.

17. klausula. Kontratazio-mahaia.

Kontratazio-mahaia eskaintzak baloratzeko eskumena duen organoa da, eta SPKLren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera eratuko da; hau da, mahaiburu bat, gutxienez hiru bokal eta idazkari bat izango ditu.

Kontratazio-mahaiaren funtzionamendu-araubidea SPKLn eta hura garatzeko xedapenetan araututakoa da.

C GUTUN-AZALA irekitzeko ekitaldi publikoak leku, egun eta ordu hauetan egingo dira:

Lekua	Bilboko Udalaren Aznar eraikineko batzorde-gelan. Venezuela plaza, 2, 1. solairua. 48001 – Bilbo.
Eguna eta ordua	Kontratatzailearen profilean adierazitakoa Asteko eguna: martitzena Ordutegia: 9:00.

Kontratazio-mahaiaren aldez aurreko jarduerak.

Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, A gutun-azala irekiko da Kontratazioko udal administrazio-unitatean, eta lizitatzaileen zerrenda, aurkeztutako adierazpenak eta, hala badagokio, erantsitako dokumentazioa jasoko dira bertan.

Aurkeztutako deklarazioan eta erantsitako dokumentazioan akats materialik antzemanez gero, interesdunei jakinaraziko die, eta, gainera, Udalaren webgunean zabaldutako kontratatzailearen profilean argitaratzen den kontratu bakoitzaren iragarki-taulan argitaratuko dira. Handik aurrera, gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaileari akatsa zuzentzeko.

Hala ere, lizitatzaile baten adierazpenak akats nabarmenik edo zuzendu ezin den akats materialik badu, ez da onartuko lizitazioan.

18. klausula. Kontratazio-mahaiaren jarduna.

a) B gutun-azalaren irekiera pribatua (formula bidez baloratu edo kuantifikatu ezin diren irizpideak ezartzen dituzten prozeduretan).

Kontratazio-mahaia eratuko da eta, A GUTUN-AZALEAN aurkeztutako agirietan akatsik edo omisiorik badago, haiek zuzendutakoan zehaztuko du zein diren onartu eta baztertu behar diren lizitatzaileak.

Ondoren, saio berean, Mahaiak FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEN B GUTUN-AZALA irekiko du, onartutako lizitatzaileei dagokiena.

Ondoren, kontratazio-mahaiak, egoki iritziz gero, espedientea sustatu duen sailari bidaliko dizkio B GUTUN-AZALAK, sail horrek egiazta dezan eskaintzek ez dutela agiri teknikoan ezarritako zehaztapenen aurkako edukirik, eskaintzak balora ditzan eta dagokion txostena egin dezan.

Baldin eta, ebaluazioa egitean, zerbitzu sustatzaileak egiaztatzen badu eskaintzaren bat baldintza-agirien aurkakoa dela edo beste gutun-azal batean aurkeztu beharreko dokumentuak edo datuak sartu dituela, txostenean agerraraziko du hori. Txostena egin ondoren, kontratazio-mahaiari bidaliko dio, eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

Beste alde batetik, proposamenak baloratzeko, egoki iruditzen zaizkion txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu proposamena egin aurretik. Hala ere, adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak esku hartu ahal izango du, baldin eta formulak aplikatuz automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei haztapen txikiagoa ematen bazaie balio-judizio baten mende dauden irizpideei dagokiena baino. Batzorde hori sortzen bada, baldintza-agiri honen karatulan agertzen den bezala osatuko da. Adituen batzorde horren ebaluazioa loteslea izango da kontratazio-mahaiarentzat, kontratua adjudikatzeko proposamena egiteko.

b) C gutun-azala jendaurrean irekitzea.

b.1) Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak erabiliz gero

Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak ebaluatzeko eskatutako txostena edo txostenak jaso eta ezagutu ondoren, Mahaia eratuko da eta ekitaldi publikoan jakinaraziko du zer haztapen esleitzen zaien formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei dagozkien eskaintzei.

Ebaluazio orokorrean onartuak izateko gutxieneko puntuazio-atalase bat eskatzen den kasuetan, nahitaezkoa izango da lizitatzaileek gutxieneko puntuazio-atalasea lortzea, eta horren ondorioz kontratazio-mahaiak ez ditu kontuan hartuko gutxieneko puntuazio horretara heltzen ez diren eskaintzak. Horren ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Ondoren, onartutako proposamenak FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI dagozkien C GUTUN-AZALAK irekiko dira, eta horietan jasotako eskaintzak irakurriko dira.

Egoki baderitzo, erabakiko du C GUTUN-AZALAK espedientea sustatu duen sailari bidal dakizkiola proposamenak formula bidez kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideen arabera aztertzeko.

b.1I) Formula bidez kuantifikatu ezin den irizpiderik erabiltzen EZ bada.

FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI dagokien C GUTUN-AZALA ireki eta eskaintzak irakurri baino lehen, kontratazio-mahaiak erabakiko du zein lizitatzaile onartu eta baztertu behar diren, eta horren berri emango du.

c) Eskaintzen ebaluazioa eta adjudikazio-proposamena.

Kontratazio-mahaiak honako jarduketa hauek egingo ditu beharrezkoak diren bileretan:

- Egiaztatuko du ea eskaintzaren batek baldintza-agirian ezarritako ez-onartzeko arrazoiren bat ote duen.

- Onartutako eskaintzak balio anormaletan sartuta ote dauden egiaztatuko du; hala bada, hurrengo artikuluan adierazten den bezala jokatuko da. Prozedura hori amaitutakoan, kontratazio-organoari proposatuko dio bete ezin den/diren eskaintza/k onartzeko edo baztertzeko.

- Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu eta eskaintzarik onena zein den zehaztuko du, haietariko bakoitzak adjudikazio-irizpide guzti-guztietan lortutako puntuak batuta.

- Kalkulua egiteko, ez ditu kontuan hartuko baztertzeko proposatutako eskaintzak.

Kontratazio-mahaiak puntuen arabera sailkatuko ditu eskaintzak, puntu gehien eskuratzen duenetik puntu gutxien duenera, eta sailkapen horren araberako adjudikazio-proposamena igorriko dio kontratazio-organoari.

Kontratazio-organoak kontratazio-mahaiaren proposamena onartuko du.

Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitza publiko egitea.

Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitza gutun-azalen irekiera-aktetan laburtuko da. Akta horiek Euskadiko Kontratazio Plataforman argitaratzen den kontratu bakoitzaren iragarki-taulan argitaratuko dira.

19. klausula. Balio anormalak edo ez-proportzionalak dituzten eskaintzak.

Balio anormalak edo ez-proportzionalak dituzten eskaintzak zeintzuk diren jakiteko, SPKLren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera jokatuko da. Karatulan zehaztu egin beharko da zer parametro objektibo erabiliko diren balio anormalak edo ez-proportzionalak dituzten eskaintzak bereizteko.

Entzuteko epe bat emango da eskaintzen ezaugarriak kontuan harturik. Epe hori gutxienez hiru (3) eta gehienez hamar (10) egun baliodunekoa izango da.

Prozeduran, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Nolanahi ere, eskaintzak baztertu egingo dira baldin eta egiaztatzen bada nabarmenki baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia (Estatukoa nahiz nazioartekoa) urratzen dutelako edo aplikatzekoak diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak urratzen dituztelako, horren barnean dela indarrean dauden hitzarmen kolektibo sektorialak urratzea, 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Nolanahi ere, ulertuko da justifikazioak ez duela behar bezala egiaztatzen lizitatzaileak proposatutako prezioen edo kostuen maila baxua, baldin eta justifikazio hori osatu gabea bada edo ikuspuntu tekniko, juridiko edo ekonomikotik desegokiak diren hipotesi edo jokabideetan oinarritzen bada.

Enpresen arteko kolusio-zantzuak eta/edo lehiaren defentsari buruzko legeria urratzen duten eskaintzak.

Erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan, kontratazio-prozeduran kolusiozko jokabideak gertatu izanaren zantzu funtsaturik baldin badago, Lehia Babesteko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikuluan definitutako zentzuan, kontratazio-organoak, ofizioz edo kontratazio-mahaiak eskatuta, Lehiaren Euskal Agintaritzari jakinaraziko dio kontratua adjudikatu baino lehen, SPKLren 150.1 artikuluan (2023rako Aurrekontu Orokorren Legeak emandako idazketan) xedatutakoaren arabera joka dezan.

20. **klausula. Berdinketa ebazteko irizpideak.**

Proposamen batzuk neurri berean badira onuragarriak (puntuazioan bi hamartar arte berdinduta daudelako), honako irizpide hauek aplikatuko dira, kontratuaren adjudikazioan hemen azaltzen diren ordenaren araberako lehentasuna emateko eta horrela berdinketa ebazteko:

1.- Desgaitasuna duten langileen ehunekoa handiagoa izatea araudiak agintzen duena baino.

2.- Plantillan desgaitasuna duten langile finkoen ehunekoa handiagoa izatea.

3.- Laneratze-enpresen araubideari buruzko abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako laneratze-enpresek aurkeztutako proposamenak.

4.- Irabazi-asmorik gabeko erakundeek, nortasun juridikoa izanik, aurkeztutako proposamenak, betiere erakunde horien helburuak edo jardunak zerikusi zuzena badauka kontratuaren objektuarekin, eta izaera soziala edo laguntzazkoa duten prestazioei buruzko kontratuetarako bakarrik.

5.- Bidezko merkataritzako antolakunde moduan aitortuta dauden erakundeen eskaintzak, bidezko merkataritzaren hautabidea duten produktuak objektutzat dauzkaten kontratuak adjudikatzekoak.

6.- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko gizarte- eta lan-arloetako neurriak dituzten proposamenak, baldin eta enpresek eskaintzak aurkezteko mugaeguna baino lehen aurkeztu badituzte.

Lizitatzaileek berdinketa gertatzen den unean aurkeztu beharko dituzte berdinketa ebazteko irizpideei dagozkien egiaztagiriak (apartatu honetan aipatzen direnak), eta ez hori gertatu baino lehenago.

Kontratazio-mahaiak behar diren agiriak eskatuko dizkie eraginpeko enpresei, eta gutxienez bost eguneko epea emango die agiriok aurkezteko.

IV. ESKAINTZEN SAILKAPENA, ADJUDIKAZIOA ETA KONTRATUA FORMALIZATZEA.

21. klausula. Eskaintzak sailkatzea.

Kontratazio-organoak onartuko du kontratazio-mahaiak proposatutako eskaintzen sailkapena.

22. klausula. Adjudikazioaren aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua egingo zaio, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako dokumentazio hau aurkez dezan:

1.- Jarduteko gaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa, ondoren zehazten diren kasuen arabera:

a) Pertsona fisikoa: proposamena egiten duen pertsonaren NANa edo horren pareko balioa duen agiri fede-emailea.

b) Pertsona juridikoa: eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-egintza, zeinetan bere jarduera arautzen duten arauak jasoko baitira, hala badagokio, behar den erregistro publikoan modu egokian inskribatuak, pertsona juridiko motaren arabera.

Nolanahi ere, beharrezkoa izango da kontratuaren objektua diren prestazioak bat etortzea beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera dituen helburuekin, xedearekin edo jarduera-eremuarekin.

c) Aldi baterako enpresa-elkarteak: kide bakoitzak bere gaitasuna, nortasuna, ordezkaritza eta kaudimena egiaztatuko ditu.

d) Espainiarrak ez diren enpresaburuak, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak direnean: enpresaburuak ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan izena emanda egotea, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiri bat aurkeztuta, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenak kontuan harturik. Era berean, enpresa horiek ezarrita dauden Estatuko legeriak kasuan

kasuko zerbitzua estatu horretan eman ahal izateko baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

e) Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisiko edo juridikoak: Espainiak haien estatuan duen ordezkaritza diplomatiko iraunkorraren txostena edo enpresaren egoitzaren lurralde-eremuari dagokion kontsuletxeko bulegoaren txostena. Era berean, aurkeztutako dokumentazioarekin batera egiaztatuko da atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak ere onartzen duela Espainiako enpresek Administrazioarekiko kontratazioan parte hartzea, funtsean antzekoa den modu batez. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresek ez dute aurkeztu beharko elkarrekikotasunari buruzko txostena.

2.- Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak. Eskaintza sinatzen duen pertsonak bere izenean jarduten ez duenean, edo lizitatzailea sozietate edo pertsona juridiko bat denean, sinatzen duen pertsonak horretarako nahikoa den ahalordea aurkeztu behar du. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, ahalorde hori behar bezala inskribatuta egon beharko da dagokion erregistro publikoan, baldin eta, pertsona juridiko motaren arabera aplikatzekoa den araudiarekin bat etorriz, nahitaez inskribatu behar bada.

3.- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo gaitasun tekniko eta profesionala.- Lizitatzaileak karatulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du eskatutako gutxieneko kaudimen-baldintzak egiaztatzeko, salbu eta adierazitako baldintza horien ordez karatulan adierazitako sailkapena (eranskin gisa ageri den ereduaren arabera) ezarri denean.

4.- Erantzukizunpeko adierazpenean hala adierazi badu, kaudimena kanpoko baliabideekin integratzeko konpromisoa, eranskin gisa ezarritako ereduaren arabera aurkeztu beharrekoa.

5.- Behin betiko bermea.- Udal Diruzaintzan administrazio kontratatzailearen aldeko behin betiko bermea jarri izanaren egiaztagiria.

Zenbatekoa.- Baldintza-agiri honen karatulako (behin betiko bermea) atalean ezarrita dago.

Bermea emateko moduak.- Bermea legean aurreikusitako edozein modutan eman ahal izango da (baldintza-agiri honen eranskinetako ereduen arabera).

Administrazioak beretzat gordetzen du abalak sinatzeko legitimazioa eskatzeko eskubidea.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, enpresa kideen sozietate-izena eta IFZa zehaztu beharko dira. Beste alde batetik, bermeak enpresa parte-hartzaile batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte, betiere oro har eskatutako zenbatekora iristen badira eta aldi baterako elkartea osatzen duten guztiei solidarioki bermatzen bazaie.

6.- Tributu-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea.

a. Foru Ogasunak edo, hala badagokio, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako ziurtagiri positiboa, tributu-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

3/2011 Legearen 15. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, interesdunak kontratazio-prozedura honetan lehiatzeko proposamena aurkezte hutsarekin kudeaketa-organoari baimena emango zaio administrazio honekiko tributu-betebeharrak betetzeari buruzko ziurtagiriak eskatzeko, eta horren ondorioz ez da beharrezkoa izango adjudikaziodun izateko proposatzen den enpresak dokumentu horiek aurkeztea.

SKPLren Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren tributu-betebeharrei dagozkien adierazpen edo dokumentu guztiak edo batzuk aurkeztera behartuta ez dagoen lizitatzaileak erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko du gorabehera hori.

Salbuespenen bat kontuan hartu behar bada, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko da hori.

b. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela edo, hala badagokio, dagokion mutuan alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri positiboa.

Indarrean dagoen ekitaldiari dagokion alta edo ekonomia-jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria; horrekin batera, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da. Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta salbuespen-kasua adieraziko du.

7.- Adjudikazioduna aldi baterako enpresa-elkarte bat bada, hura eratzeko eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Era berean, elkarteko kide bakoitzak ogasunen eta Gizarte Segurantzaren arloko ziurtagiri positiboa eta jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko dokumentazioa aurkeztuko ditu.

8.- Hala badagokio, kontratazio-organoak eskatzen dizkion edo eta kontratua gauzatzeko hitzeman dituen baliabideak benetan erabilgarri dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

9.- Kontratu erreserbatuak: kontratu erreserbatuaren kasuan, lizitatzaileak dokumentu bidez egiaztatu behar du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

Lizitatzaileen Erregistroaren ZIURTAGIRI bidezko egiaztapena.-

Adierazitako inguruabarren (jarduteko gaitasuna, ordezkaritza eta kontratisten sailkapena egiaztatzen dituen dokumentazioa) egiaztapenaren ordez, honako erregistro hauetako edozeinek emandako ZIURTAGIRIA aurkeztu ahal izango da:

a) a) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala, edo

b) b) Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofiziala (hala badagokio), edo

c)Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiriaren bidez.

Dagokion erregistroan aurkezten den ziurtagirian jasotzen ez diren inguruabarrei dagokienez, eskatzen diren egiaztagiriak aurkeztuko dira.

Nolanahi ere, ziurtagiriarekin batera lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, eta bertan adierazi beharko da ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu.

Zuzenketa. Baldin eta konpon daitekeen akats edo omisioren bat ikusten bada aztertutako dokumentazioan, interesdunari jakinaraziko zaio posta elektronikoz, eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko.

Ez-betetzea (150. art.)

Errekerimendua behar bezala betetzen ez badu adierazitako epean, eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da. Kasu horretan, jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatzea (BEZik gabe), zigor moduan; zenbateko hori, lehenbizi, behin-behineko bermearekin ordainduko da, baldin eta hori jarri bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71.2 artikuluko a) letran ezarritakoa.

- Hurrengo lizitatzailearengandik dokumentazio bera biltzea, eskaintzak sailkatu diren hurrenkerari jarraiturik.

23. klausula. Adjudikazioa

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan adjudikatu beharko du kontratua. Adjudikazioa kontratazio-organoak erabakiko du, ebazpen arrazoitu baten bidez.

Lizitatzaileei jakinaraztea – Adjudikazioaren ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, kontratazio-mahaiak eskaintzak baloratzeko emandako txostenarekin batera, hala badagokio.

Jakinarazpena egiteko, hartzaileak jaso duela egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliko da.Ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez egingo da jakinarazpena.

Adjudikazioa publiko egitea. Jakinarazpenaren aldi berean, adjudikazioarekin eta eskaintzen balorazio-txostena argitaratuko dira kontratatzailearen profilean, eta aditzera emango da zein den formalizatzeko epea.

24. klausula. Kontratua burutzea.

Kontratua formalizatzeaz bat burutzen da.

Kontratua kontratazio-organoaren egoitza dagoen lekuan egin dela ulertuko da.

25. klausula. Kontratua formalizatzea.

-Kontratua formalizatu aurretik, entitate adjudikatzaileak adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan adieraziko du non kokatuko diren zerbitzariak eta nondik emango diren zerbitzariei lotutako zerbitzuak, eta orobat aurkeztu beharko du kontratuaren iraunaldian zehar adierazpen horretan gertatzen den edozein aldaketa jakinarazteko konpromisoa ere, baldintza-agiri honen eranskinean agertzen den adierazpen-ereduaren arabera.

26. **klausula.** Kontratua formalizatzeko epea.

- Kontratuaren aurka kontratazio-arloko errekurtso berezia jar badaiteke, kontratua ezin izango da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaileei bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Epe hori igarotakoan, eta kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko lukeen errekurtsorik ez bada jarri epe horretan, edo, hala badagokio, errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etendura eten badu, adjudikaziodunak gehienez ere bost eguneko epean formalizatu beharko du kontratua, formalizatzeko errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera.

- Kontratuaren aurka ezin bada kontratazio-arloko errekurtso berezirik jarri, hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da kontratua, lizitatzaileek adjudikazioren jakinarazpena jasotzen dutenetik aurrera.

Kontratua aurretik formalizatuta ez badago, ezin izango da gauzatzen hasi, salbu eta espedientearen izapidetzea presakoa edo larrialdikoa denean izan.

27. klausula. Kontratua ez formalizatzearen ondoreak. (153. art.)

Kontratua ez bada adierazitako epeetan formalizatu adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen kausengatik, urrats hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 (BEZik gabe) eskatzea, zigor moduan; zenbateko hori, lehenbizi, behin betiko bermearekin ordainduko da, baldin eta hori jarri bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71.2 artikuluko b) letran ezarritakoa.

- Kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatzea, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraituz. Aurretiaz, 22. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egingo zaio eta dokumentazio hori aurkeztu beharko du.

Kontratua ez formalizatzea Administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik gertatu bada, berandutzeak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio kontratistari.

28. klausula. Aseguruak.

Kontratua formalizatu ondoren, adjudikaziodunak dokumentu hau aurkeztu beharko du:

ASEGURU-ENTITATEAREN ZIURTAGIRIA, kontratistak sinatutako erantzukizun zibileko poliza indarrean duela egiaztatzen duena.

Adjudikaziodunak aseguru-poliza hauek kontratatu eta mantenduko ditu bere kontura kontratuaren iraupen- eta berme-epean:

Erantzukizun zibileko asegurua, izaera orokorrekoa edo ustiapenekoa, patronala, eta amaitutako lanetakoa, aseguratua kontratista izanik, baita azpikontratista ere, hala badagokio.

Ustiapenaren erantzukizun zibilerako frankizia ezin izango da 10.000 eurotik gorakoa izan, eta ezbeharragatiko kalte-ordainaren gutxieneko muga honako hau izango da:

LIZITAZIOAREN PREZIOA (EUROTAN)	KALTE-ORDAINAREN GUTXIENEKO MUGA (EUROTAN)
1.000.000 € arte	300.000
1.000.001 eta 3.000.000 € artean	600.000
3.000.001 eta 9.000.000 € artean	1.500.000
9.000.001 eta 25.000.000 € artean	3.000.000
25.000.001 eta 75.000.000 € artean	6.000.000
75.000.000 €-tik gora	12.000.000

Nolanahi ere, kalte-galerak adjudikaziodunak hartuko ditu bere gain frankiziaren zenbatekoan eta aseguru-poliza bakoitzean ezartzen diren mugak gainditzen dituzten zatian, bai eta poliza horietan estaltzen ez diren ondasun eta arriskuei dagozkienak ere.

Obrak amaitzeko aurreikusitako data atzeratzen bada, behar diren luzapenak kontratatuko dira, eta adjudikaziodunak dagokion gainprima ordaindu beharko du.

II. ZATIA

OBRA-KONTRATUEN ONDOREAK ETA OBRA-KONTRATUAK BETETZEA ETA AZKENTZEA

V. KONTRATUA BETEARAZTEA

29. klausula. Zuinketa egiaztatzea. (SPKLren 237. art. eta AOren 139., 140. eta 141. art.)

Lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatu egin beharko da, kontratista aurrean dela, eta horretarako hilabeteko epea egongo da, kontratua formalizatzen denetik aurrera, SPKLren 237. artikuluan eta HAKLren Erregelamendu Orokorraren 139., 140. eta 141. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Kontratazio-espedientea presaz izapidetu beharrekotzat jo bada, adjudikaziodunak behin betiko bermea eratzen duen unetik aurrera egiaztatuko da zuinketa.

Obren zuzendari fakultatiboaren iritziz, eta kontratistaren erreparorik gabe, zuinketaren egiaztapenaren emaitzak frogatzen badu lursailen jabetza badagoela eta benetan prest daudela, lursailak egokiak direla eta proiektua bideragarria dela, obra-zuzendariak baimena emango du obrak hasteko, eta hori berariaz jasoko da egingo den aktan. Baimen hori kontratistari jakinarazita dagoela ulertuko da akta sinatze hutsagatik, eta obrak egiteko epea akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

KONTRATAZIOAREN BARRUAN OBRA-PROIEKTUA IDAZTEKO LANAK SARTZEN BADIRA, obra egin ahal izateko, kontratistak aurkeztutako proiektua gainbegiratu eta onetsi egin beharko du Administrazioak, bai eta zuinketa egin ere.

30. klausula. Lan-programa. (EOren 144 art.)

Kontratistak lan-programa bat aurkeztu beharko du kontratua formalizatu eta gehienez ere hogeita hamar eguneko epean, eta lan-programa horretan HAKLren Erregelamendu Orokorraren 144. artikuluan adierazitako alderdiak jaso beharko ditu.

Lan-programak ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratu-baldintzetan, baina proposatu ahal izango du azken epea murriztea eta obra betearazteko epe partzialak aldatzea, betiere Administrazioaren kreditu-

baliabideek aukera ematen badute aldaketa horien ondorioz urterokoetan egin beharko diren doikuntzak egiteko, baina inola ere ezin izango da obra-adjudikazioaren guztizko aurrekontua handitu.

Kontratazio-organoak hamabost eguneko epean ebatziko du bidezkoa dena, lan-programa aurkezten den egunetik aurrera zenbaturik, eta aldaketak edo zenbait preskripzio sartu ahal izango ditu onarpen-ebazpenean, betiere kontratuaren klausulen kontrakoak ez badira.

Lan-programa onartu ondoren, kontratuan txertatuko da, eta, hala badagokio, urterokoen doikuntza egingo da.

KONTRATUA BETEARAZTEKO EPEA URTEBETETIK BEHERAKOA BADA ETA BEHARREZKOTZAT JOTZEN EZ BADA KONTRATISTAK LAN-PROGRAMA AURKEZTEA, onartutako proiektuko lan-programan aurreikusita dagoena bete beharko da.

31. klausula. Segurtasun eta Osasun Plana.

Arau espezifikoek salbuesten duten kasuetan izan ezik, segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana edo, hala badagokio, oinarrizko azterlana egin beharko da, egokia zein den, Eraikuntza-obretan segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Kontratistak laneko segurtasun- eta osasun-plan bat egingo du obra bakoitzerako, eta azterlanean edo oinarrizko azterlanean jasotako aurreikuspenak analizatu, aztertu, garatu eta osatuko dira plan horretan, obra betearazteko duen sistemaren arabera.

Segurtasun- eta osasun-plana kontratazio-organoak onartu beharko du obra bakoitza hasi aurretik, obraren betearazpenak iraun bitarteko segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileak edo, hala badagokio, zuzendariak txostena egin ondoren.

32. klausula. Obrak seinaleztatzea.

Kontratistak behar diren seinaleak ipini behar ditu, bere kontura, adierazteko zeintzuk diren obrarako sarbideak, nolakoa izango den zirkulazioa lan-esparruaren barruan, eta zer arrisku-puntu eragin ditzaketen lanek hala lan-esparruan nola horren muga eta inguruetan.

Zuzendaritzak idatziz agintzen badio seinale gehiago ipintzeko edo ipinitakoak aldatzeko, kontratistak bete egin beharko ditu agindu horiek.

Seinaleak jartzeko lanen gastuak kontratistaren kontura gelditukо dira.

Aurreko atalean ezarritako epea igaro eta kontratistak ez baditu bertan adierazitako seinaleak ipini, Administrazioak berak ipiniko ditu, eta gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Betearazpenaren hizkuntza-baldintzak.

Kontratista adjudikaziodunak eta izan litezkeen azpikontratistek hizkuntza ofizial biak erabili beharko dituzte obran erakusten diren errotulazio- eta seinaleztapen-elementu guztietan, bai barne-esparruan, bai kalean bertan dauden informazio-paneletan.

Herritarren eskura jarriko diren agiri edo inprimaki guztiak ere, halakorik baldin badago, elebidunak izango dira.

33. klausula. Obra-zuzendaritza eta kontratistaren ordezkaria.

Administrazioak, horretarako izendatutako zuzendari fakultatiboaren bitartez, ikuskatze-, egiaztatze- eta zaintze-lanak egingo ditu kontratatutako obra behar bezala gauzatzeko, eta obra-ordezkariaren bitartez emango dizkio aginduak eta jarraibideak kontratistari.

Kontratistaren obra-ordezkaria kontratistak izendatu beharko eta Administrazioak onartu egin beharko du, eta egiaztatutako esperientzia izan beharko du kontratazioaren objektuaren antzeko obretan.

34. klausula. Kontratuaren objektua diren lanen arduradun gainbegiralea.

Kontratazio-organoak pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu ahal izango du lanaren arduraduna izan dadin. Pertsona hori ente kontratatzaileari lotuta egon daiteke, edo harekin zerikusirik ez izan, eta egiaztatuko du lana kontratuan ezarritakoaren arabera egiten dela. Berak emango dizkio kontratistari kontratazio-organoaren aginduak eta jarraibideak. Inor kontratuaren arduradun izendatzen badu, izendatutakoak, zehazki, eskumen hauek izango ditu:

- Kontratazio-organoari proposatzea kontratua ez betetzeagatik kontratistari ezarri beharreko zigorrak, baldin eta kontratistari egotz dakizkiokeen ez-betetzeak gertatzen badira.

- Obra-harreran izatea eta, beharrezkoa denean, hartutzat jotzea.

Eskumen horiek ez dute eragotziko obraren zuzendari fakultatiboari dagozkion eskumenak betetzea.

35. klausula. Kontratistaren betebeharrak. (SPKLren 238. art.)

1.- Obrak, egin, administrazio-klausula partikularren agirian jasotako estipulazioei eta kontratuaren oinarri den proiektuari estu-estu lotuta egingo dira, eta obren zuzendaritza fakultatiboak interpretazio teknikoa eginez kontratistari emandako jarraibideen arabera. Jarraibideok, berbaz emandakoak badira, idatziz berretsi behar dira ahalik lasterrena, alderdi bientzat lotesleak izan daitezen.

Era berean, kontratazio-organoak kontratuaren arduradun izendatutakoak, dituen eskudantzien barruan, kontratistari jarraibiderik ematen badio, kontratistak bete egin beharko ditu jarraibide horiek.

2.- Obrek iraun bitartean, eta berme-epea bete arte, kontratista da eraikuntzan agertzen diren akats guztien erantzule.

Administrazioak izendatutako zuzendari fakultatiboaren iritziz obraren zatiren bat gaizki egin bada, kontratistak berregin egin beharko du, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, nahiz eta jaso ondoren antzeman.

Zuzendaritzak uste badu obra-unitate akastunak edo kontratuaren baldintzak zorrotz betetzen ez dituztenak onargarriak direla, Administrazioari proposa diezaioke onartzea, eta, ondorioz, prezioak jaistea. Kasu horretan, kontratista behartuta dago Administrazioak finkatutako prezio beheratuak onartzera, salbu eta unitate akastunak bere kabuz eta kontratuaren baldintzen arabera eraitsi eta berreraiki nahi baditu.

3.- Kontratistak bere arriskura eta menturara gauzatuko du kontratua, SPKLren 239. artikuluan ezarritako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

4.- Baldin eta kontratua gauzatzeko bete beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei kalte-galerarik eragiten bazaie kontratistaren kabuz edo haren mendeko langile edo bitartekoen bidez, kontratistaren betebeharra izango da eragindako kalte-galera guztien kalte-ordaina ematea. Baldin eta kalte-galera horiek Administrazioak emandako agindu baten ondorio zuzenez eta berehala sortutakoak badira, Administrazioa izango da erantzule, legeetan aipatutako mugen barruan.

Kontratua enpresa batekin baino gehiagorekin batera gauzatzen bada, guztiak izango dira klausula honetan aipatzen diren erantzukizunen erantzule solidarioak.

5.- Kontratistak lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, eta horretan berak izango du erantzukizun guztia. Kontratuaren objektua gauzatzeko behar diren langileak izan beharko ditu bere kargura, eta, kontratuari dagokionez, enpresaburu izango da ondorio guztietarako.

6.- Kontratistak isilpean gorde beharko ditu, publikoak edo agerikoak izan ez arren, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten eta kontratuaren ondorioz ezagutu dituen datu edo aurrekariak.

7.- Berme-epea amaitu eta gero obra hondatu egiten bada kontratistak kontratua bete ez duelako eta horren ondorioz eraikinak ezkutuko akatsak dituelako, kontratistak hamabost urtez erantzun beharko die, obra hartzen denetik kontatzen hasita, sortzen edo agertzen diren kalte-galerei. Epe hori igaro eta oraindik inolako kalterik edo galerarik agertu ez bada, orduan, iraungiko da kontratistaren erantzukizun oro.

KONTRATAZIOAK OBRA-PROIEKTUAREN IDAZKETA BARNE HARTZEN BADU, proiektua idatzi duen kontratistak kontratazioaren objektua den obra-proiektua aurkeztu beharko du euskarri informatikoan egindako kopia batekin batera.

Kontratistak erantzun beharko du obrak egin edo ustiatzean Administrazioari zein hirugarrenei sortutako kalte-galerengatik, proiektuko akats eta eskasia teknikoengatik edo berak egin eta berari egotz dakizkiokeen errakuntza materialengatik, hutsegiteengatik eta legezko zein erregelamenduzko aginduen aurkako arau-hausteengatik, eta hori guztia SPKLren 314. eta 315. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Era berean, proiektuan aurreikusitako obra egiteko aurrekontua obraren benetako kostutik % 20 baino gehiago urruntzen bada, goitik zein behetik, kontratistari egotz dakizkiokeen errakuntzen edo egin gabekoen ondorioz, proiektua egiteko kontratuaren prezioa gutxitu egingo da, kalte-ordain gisa, desbideratzearen ehunekoaren arabera, gehienez ere haren erdiaren parera iristen den kopurura arte, SPKLren 315. artikuluan ezarritako baremoaren arabera.

Kontratistak erantzungo du obrak egin edo ustiatzean kontratazio-organoari zein hirugarrenei sortutako kalte-galerengatik, proiektuko akats eta eskasia teknikoengatik edo berak egin eta berari egotz dakizkiokeen errakuntza materialengatik, hutsegiteengatik eta legezko zein erregelamenduzko aginduen aurkako arau-hausteengatik, eta hori guztia SPKLren 315. artikuluan ezarritakoaren arabera.

36. klausula. Kontratistaren konturako gastu eta zergak. (EOren 153 art.)

1. Edozein obra-unitate behar bezala egiteko eta amaitzeko behar diren lan, baliabide lagungarri eta material guztiak obraren prezioan sartuta daudela ulertuko da, nahiz eta horiek guztiak prezioen banaketan edo deskribapenean zehaztuta ez egon.

2. Beren kontzeptuagatik erregelamendu honen 130.3 artikuluan zeharkako kostuen titulu generikoaren pean aipatzen diren gastuekin pareka daitezkeen gastu guztiak proiektuaren obra-unitateen prezioen barruan daudela ulertuko da beti, baldin eta aurrekontuan obra-unitateetan edo honenbesteko finko bateko partidetan baloratuta ez badaude.

3. Kontratistaren kontura izango dira lizitazioa aldizkari ofizialetan argitaratzearen ondoriozko gastu guztiak, bai eta kontratua formalizatzearen ondoriozkoak ere, baldin eta kontratua eskritura publiko bihurtzen bada.

KONTRATAZIOAREN OBJEKTUAK PROIEKTUAREN IDAZKETA BARNE HARTZEN BADU, ulertuko da obra-proiektua ikus-onesteko eskubideak ere sartuta daudela adjudikaziodunaren proposamenean.

4. Obraren zuzendaritzak erabakitako entseguen eta kalitate-kontrolen gastuak kontratistaren kontura izango dira, gehienez ere obraren aurrekontuaren % 1en baliokide den zenbatekoan. Hala ere, obraren kalitatean eta exekuzioan izandako akatsen ondorioz egin beharreko kontrolek eragindako gastuak ez dute muga hori izango, eta oso-osorik kontratistaren kontura izango dira. (EOren 67.3.i art.)

37. klausula. Epeak betetzea.

Kontratista behartuta dago kontratuaren exekuzio-epea baldintza-agiri honetan aurreikusitakoaren arabera betetzera.

Kontratista berandutze-egoeran sartzeko, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik ohartarazpena egitea.

38. klausula. Berandutzeagatiko zigorrak.

Obraren amaieran, kontratista berari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik berandutu bada, administrazioak aukera bi izango ditu: edo kontratua suntsiaraztea eta eratutako bermea ez itzultzea, edo eguneko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan (BEZik gabe).

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratistak kontratua betearazten jarraitzea erabakitzeko.

Administrazioak ahalmen hori bera izango du kontratistak epe partzialak betetzen ez dituenean edo, epe partzial hauek betetzen berandututa, guztirako epea ere ezingo dela bete uste izateko nahiko arrazoi ikusten bada.

Zigorra ezartzen bada, horrek ez du ekarriko kontratistari egotz dakiokeen atzerapenak eragindako kalte-galerengatik Administrazioak ordaina jasotzeko eskubidea galtzea.

Baldin eta kontratistari egoztekoak ez zaizkion arrazoiengatik gertatzen bada atzerapena epeak betetzeko orduan, Administrazioak luzapena eman ahal izango du, kontratistaren eskariz edo ofizioz, eta luzapen hori galdutako denboraren bestekoa izango da, salbu eta kontratistak berak epe laburragoa eskatzen duenean, SPKLren 195. artikuluan xedatutakoaren arabera.

39. klausula. 39. klausula. Betetze akastunagatiko zigorrak.

Kontratistak akatsekin egiten badu kontratuaren objektua, edo ez baditu betetzen kontratua betearazteko behar diren giza bitartekoak edo bitarteko materialak jartzeko konpromisoa edo kontratua betearazteko ezarritako baldintza bereziak, orduan kontratazio-organoak zigor ekonomiko bat ezarri ahal izango du, ez-betetzearen larritasunarekin proportzionala izango dena.

Karatulak ez badu bestelako zigorrik aurreikusten, kontratuaren objektu den prestazioa behar bezala ez betetzea honela zigortuko da:

- Oro har, zigor bakoitzaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 1 izango da, salbu eta kontratazio-organoak uste badu, arrazoiak azalduta, ez-betetzea larria edo oso larria dela; kasu horretan, kontratuaren prezioaren % 5 edo legez gehienez irits daitekeen % 10 izan daiteke (BEZik gabe), hurrenez hurren. Ez-betetzea behin baino gehiagotan gertatzen bada, kontuan hartu ahal izango da larritasuna baloratzeko.

Nolanahi ere, zigor horietako bakoitzaren zenbatekoak ezin izango dira izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoak BEZik gabe, eta haien guztizkoak ezin izango du gainditu, ezta ere, kontratuaren prezioaren ehuneko 50a.

- Nolanahi ere, zigorrak ezartzeak ez du kontratista salbuetsiko akatsak konpontzeari dagokionez legez dagokion betebeharretik.

40. klausula. Kontratistari ordaintzea (SPKLTBren 216. eta 232. artikuluak eta EOren 150. artikulua)

Obra-zuzendariak, hilero, aurreko hilabetean egindako obren ziurtagiria emango du, dagozkion hilabetearen ondorengo lehen hamar egunetan, APKLEOren 147. artikulutik 149. artikulura bitartean ezarritakoaren arabera egin eta izapidetutako zerrenda baloratuetan oinarrituta. Hilabeteren batean obra-unitaterik egin ez arren, hileko ziurtagiri horiek eman egingo dira, eta zenbatekoa "0 €" dela adieraziko da.

Obra-ziurtagirien ordainketa kontratistak egindako faktura elektronikoaren arabera egingo da, hurrengo klausulan xedatutakoaren arabera.

Ordainketak kontura egindako ordainketatzat hartuko dira, azken neurketan gertatzen diren zuzenketa eta aldaketen menpe egongo dira, eta ez dute inolaz ere berekin ekarriko biltzen dituzten obrak onestea eta hartzea.

Zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak kontratistari prezioa ordaintzeko; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, hogeita hamar eguneko epe horretatik aurrera berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera.

Kontratistak eskubidea edukiko du, halaber, kontratua betearazteko diren prestakuntza-eragiketen zenbatekoaren adinako konturako ordainketak jasotzeko. Nolanahi ere, eskatuko zaio bermea eratu dezala abal gisa edo legeak onartutako beste moduren batez.

Kontratistak kontratu-epeetan aurreikusitakoa baino azkarrago egin ahal izango ditu lanak , baina ez du eskubiderik izango dagokion urtean kontsignatutako prezioa baino kopuru handiagoa jasotzeko, eta zenbateko hori gainditzen duten ziurtagiriak hurrengo urtea hasitakoan ordainduko dira. (EOren 152. art.)

Kontratistak aldez aurretik idatziz eskatuta, konturako ordainketak egin ahal izango dira materialak biltzeagatik eta obrari atxikitako instalazioen eta ekipoen gastuengatik, HAKLren Erregelamendu Orokorraren 155., 156. eta 157. artikuluetan aurreikusitako moduan eta bermeekin.

Bestalde, Administrazioarengandik kobratzeko eskubidea daukaten kontratistek laga egin dezakete eskubide hori, zuzenbidearen arabera, baina ezinbesteko betekizuna da Administrazioari lagapen-erabakiaren jakinarazpena helaraztea modu frogagarrian.

Kobratzeko eskubideak jatorri duen harreman juridikoa sortu aurreko lagapenek ez dute eraginik sortuko Administrazioaren aurrean. Nolanahi ere, Administrazioak kontratu-harremanetik heldutako kausazko salbuespen guztiak jarri ahalko ditu lagatzailearen aurka. (SPKLren 200. art.).

Kontratistak kreditu-lagapena kontratatzen badu: berariaz debekatuta dago baliabiderik gabeko factoring-eragiketak formalizatzea kontratu honen ondoriozko eragiketak finantzatzeko.

41. klausula. Faktura elektronikoa.

Kontratistak formatu elektronikoa erabili beharko du fakturak egin eta udalari bidaltzeko.

Fakturazio elektronikorako sistema propiorik ez duen kontratistaren kasuan, udaleko webgunearen bidez eskura daiteke faktura elektronikoa igortzeko aukera emango dion tresna, bai eta PDF-417 zehaztapenaren arabera sortutako autentifikazio-marka grafikoekin inprimatutako dokumentua lortzekoa ere, espedientea zein administrazio-unitatetakoa izan eta administrazio-unitate horrek eta hura osatzeko ardura duen funtzionarioak har dezaten, modu elektronikoan, «Facturae 3.2» formatuan.

Fakturazio elektronikorako sistema propioa duen kontratistaren kasuan, nahitaezkoa izango da Zerga Agentziak erabiltzen duen «Facturae 3.2» formatua erabiltzea.

Kasu bietan, sinadura elektroniko aurreratu baten bidez sinatu diren faktura elektronikoak bakarrik onartuko dira; sinadura elektroniko aurreratu horrek ziurtagiri onartu batean oinarrituta egon beharko du, eta sinadura sortzeko gailu seguru baten bidez sortua izan beharko du.

Ziurtapen-agintaritzari dagokionez, baliozkotzat jotzen dira CIMUBISAren adostasuna duten zerbitzuak ematen dituzten enpresek emandako ziurtagiriak.

42. klausula. Prezioak berrikustea.

Kontratistak arrisku eta menturara jardun beharko du kontratua betearaztean, SPKLren 103. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Prezioen berrikuspena, hala badagokio, SPKLTBren 103. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera egingo da, karatulan aurreikusitako berrikuspen-indizea edo -formula aplikatuz.

Nolanahi ere, betearazitako lehenengo ehuneko 20a eta kontratua formalizatu zenetik igarotako lehen bi urteak berrikuspenetik kanpo geldituko dira.

Kontratuan aplikatu beharreko berrikuspen-formula edo -indizea aldaezina izango da kontratua indarrean dagoen bitartean, eta berak zehaztuko du prezioen berrikuspena noiz egin, adjudikazioaren eguna kontuan hartuta.

43. klausula. Lan-arloko betebeharrak eta betebehar sozialak.

Kontratistak nahitaez bete behar du lan-arloan eta gizarte-segurantzaren arloan indarrean dagoen araudia. Era berean, honako hauek bete behar ditu nahitaez: 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena; 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa; 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa; Prebentzio Zerbitzuen Araudia, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartua; eta kontratua betearaztean aldarrikatzen diren arauak.

Enpresa kontratistak aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan finkatutako arau eta baldintzak bete behar ditu, nahitaez, kontratua betearazteko epe osoan; nolanahi ere, adjudikaziodunak langileen soldata-

baldintzak bete beharko ditu, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera. (122.2 artikulua).

192. artikuluak aipatzen dituen zigorrak ezarriko dira, lehen paragrafoan jasotako betebeharrak betetzen ez badira eta, batez ere, soldaten ordainketan urraketak edo atzerapen errepikatuak gertatzen badira, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorriak direnak baino soldata-baldintza baxuagoak aplikatzen badira eta aplikazio hori astuna eta doluzkoa bada. (201. art.).

Adjudikaziodunak kontratazioaren objektu den zerbitzua emateko erabiltzen dituen langileei eman beharreko ordainsaria bere kontura izango da bakar-bakarrik, eta orobat bere kargura geldituko da edozein kostu sozial eta lan-arloko kostu, indarrean dagoen legeria eta eragiten dioten hitzarmenak betez. Udala, berriz, erabat salbuetsita geratuko da kontratistaren eta bere langileen arteko harremanen gaineko erantzukizunetik.

Kontratua azkentzen denean, kontratuaren objektu diren lanak egin dituzten pertsonak ezin izango dira inoiz ere geratu sektore publikoko ente, organismo edo entitate kontratatzaileko langile modura.

Lan-grebarik egiten bada eta horrek eragiten badio kontratazioaren objektu den zerbitzuari, adjudikazioduna behartuta egongo da, kontratazio-organoak hala eskatzen dionean eta adierazten dizkion epean eta moduan, administrazio eskudunak zehazten dituen ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak bermatzeko konponbideak eskaintzera. Adjudikaziodunak konponbiderik eskaini edo praktikan jartzen ez badu, kontratuaren zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontratuak sustatu ahal izango ditu onartutako gutxieneko zerbitzuak betetzeko, eta kontratu horiek esleipendunaren kontura izango dira; beraz, kontratu horien zenbatekoa fakturaziotik kenduko zaio. Hirugarrenei kontratatutako lan horietatik eratortzen den erantzukizuna, ordea, adjudikaziodunarena izango da, baldintza-agiri honetan jasotzen diren ondorio guztietarako.

44. klausula. Kontratua betearazteko baldintza bereziak.

1. Langabeziak bereziki eragiten dien kolektiboetan enplegua sustatzeko baldintzak.

Kontratua betearazteko behar diren langileen kontratazio berrietan, enpresa kontratistek lehentasuna emango diete legezko langabezia-egoeran dauden pertsonei, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren 208. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Beraz, ez bada justifikatzen ezinezkoa dela egin beharreko lan zehatzaren ezaugarriak kontuan harturik, bermatuko dute gutxienez kontratazio berrien % 15 kolektibo horietako pertsonekin egingo direla.

Kontratistak kontratua betetzeko egindako langileen kontratazio berriak egiaztatu beharko ditu, bai eta langabeziak bereziki eragiten dien kolektiboetako pertsonenak ere, eta horretarako behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du: izena, abizenak, NANa eta Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

Kontratatzeko betebehar hori salbuetsi ahal izango da baldin eta kontratuaren adjudikazioak langileak subrogatzea badakar eta kontratu berriak ez badu behartzen kontratazio berriak egitera.

Eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea edo klausulan aurreikusi den legezko langabezia-egoeran dauden pertsonak kontratatzeko betebeharra ez betetzea kontratuaren ez-betetzetzat hartuko da, eta kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zigorra ezarriko da.

1.2 Baldin eta enpresa adjudikaziodunak kontratuaren zati bat azpikontratatu behar badu, betiere lortu beharreko prestazioen ezaugarriak kontuan harturik hori posible denean, azpikontratazio hori egiteko, ahal dela, abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuan aurreikusitako Enplegu Zentro Berezien Erregistroan inskribatutako entitateak edo Laneratzeko Enpresen Erregistroan inskribatutako entitateak hautatuko dira, Laneratzeko enpresen erregimena arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legean xedatutakoa betez, edota gizarte-bazterketaren arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko entitateekin.

2. Berme sozialeko baldintzak

Lan-baldintzak betetzeko baldintzak

Enpresa kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan-arloko, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak, eta, eman beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan-ordenantza eta hitzarmen kolektibo horietan ezarritako xedapenak.

Enpresa adjudikaziodunak, dagozkion erantzukizunpeko adierazpenen bidez edo, hala badagokio, organismo eskudunen ziurtagirien bidez, egiaztatu behar du kontratua betearaztean bete egin direla lanpostuen babesari, lan-baldintzei eta lan-arriskuen prebentzioari buruz indarrean dauden eta aplikatzekoak diren xedapenetatik eratorritako betebeharrak.

Betebehar hori ez betetzea kontratuaren ez-betetzetzat hartuko da, eta kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zigorra ezarriko da.

Gutxieneko lan-baldintzei lotutako baldintzak.

Enpresa kontratista behartuta dago kontratua betearazteko epe osoan aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan finkatutako arau eta baldintzak betetzera; nolanahi ere, adjudikazioduna behartuta egongo da langileen soldata-baldintzak aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera betetzera. (122.2 art.)

Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du, kontratua betearazten den bitartean Bilboko Udalak informaziorik eskatzen badio kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz, informazio hori eman egingo diola.

Betebehar horiek ez betetzea arau-hauste arin gisa kalifikatuko da, eta kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zigorra ezarriko da.

Ez-betetzea arau-hauste astun gisa kalifikatzen bada, kontratua suntsiarazi egingo da eta kontratatzeko debekua adieraziko da.

Azpikontratazioari dagozkion baldintzak.

Azpikontrataziorik egiten bada, kontratista nagusiak izango du kontratua betearazteko erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean, administrazio-klausula partikularren agiriei eta kontratuaren baldintzei estu-estu loturik; horren barnean egongo da betebehar sozialak eta lan-arlokoak betetzea.

Betebehar hori ez betetzea arau-hauste arin gisa kalifikatuko da, eta hargatik kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zigorra ezarriko da.

Ez-betetzea arau-hauste astun gisa kalifikatzen bada, kontratua suntsiarazi egingo da eta kontratatzeko debekua adieraziko da.

Banakako nahiz taldeko lan-harremanen arloko araudia betetzeko baldintzak.

Baldin eta gai horretan eskuduna den agintaritzak enpresa kontratista zigortzen badu administrazio-bidean irmoa den zehapen batekin, eta horren arrazoia bada Lan Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen (LAZL) —abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua— 6. edo 7. artikuluetan tipifikatuta dauden lan-harremanen arloko arau-hausteak egin dituela kontratua betearaztean, hori kontratuaren ez-betetzetzat joko da, eta, horren ondorioz, kontratuaren aurrekontuaren % 5era arteko zigorra ezarriko da zehapena arau-hauste arin bategatik ezartzen bada (6. artikulua), edo % 10era artekoa, arau-hauste astun bategatik ezartzen bada (7. artikulua).

Kontratua betearaztean LAZLren 8. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso astuna egiteagatik ezartzen bada kondena, ulertuko da kontratuaren funtsezko baldintza bat ez dela bete, eta zehapena administrazio-bidean irmoa denean kontratua suntsiarazteko kausa sortuko du kontratistak.

Era berean, kontratista behartuta dago, laneko arriskuen prebentzioaren arloan zehazpenik ezartzen bazaio kontratua betearaztean egindako egitateengatik, kontratuaren arduradunari horri buruzko informazio zehatza ematera eta, orobat, zehazpenaren aurka errekurtsorik jarri badu, errekurtso horiei eta haiek erabakitzeko ematen diren ebazpenei buruz ere informatzera. Ez bada betetzen informazioa emateko betebehar hori, ulertuko da kontratuaren baldintza funtsezko bat ez dela bete, eta, zehapena irmoa den unetik aurrera, kontratistaren ez-betetze hori kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

Laneko arriskuen prebentziorako arautegia betetzeko baldintzak.

Baldin eta gai horretan eskumena duen agintaritzak administrazio-bidean irmoa den zehapen batekin kondenatzen badu enpresa kontratista, eta zigor horren arrazoia bada Lan Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen (LAZL) —abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua— 11. edo 12. artikuluetan tipifikatuta dauden laneko arriskuen prebentzioaren arau-hausteak egin dituela kontratua betearaztean, hori kontratuaren ez-betetzetzat joko da, eta, horren ondorioz, kontratuaren aurrekontuaren % 5era arteko zigorra ezarriko zaio zehapena arau-hauste arin batengatik ezarri bada (11. artikulua), edo % 10era artekoa, arau-hauste astun batengatik ezarri bada (12. artikulua).

Kontratua betearaztean LAZLren 13. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso astuna egiteagatik ezartzen bada kondena, ulertuko da kontratuaren baldintza funtsezko bat ez dela bete, eta, zehapena administrazio-bidean irmoa den unetik aurrera, kontratistaren ez-betetze hori kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

Era berean, kontratista behartuta dago, laneko arriskuen prebentzioaren arloan zehazpenik ezartzen bazaio kontratua betearaztean egindako egitateengatik, kontratuaren arduradunari horri buruzko informazio zehatza ematera eta, orobat, zehazpenaren aurka errekurtsorik jarri badu, errekurtso horiei eta haiek erabakitzeko ematen diren ebazpenei buruz ere informatzera. Ez bada betetzen informazioa emateko betebehar hori, ulertuko da kontratuaren baldintza funtsezko bat ez dela bete, eta, zehapena irmoa den unetik aurrera, kontratistaren ez-betetze hori kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintzak.

Kontratistak bermatuko du, kontratua gauzatzen denean, dokumentazioko, publizitateko, irudietako edo materialetako hizkuntzaren erabilera ez dela sexista izango, emakumeak diskriminatzen dituzten irudi edo estereotipo sexista guztiak baztertu egingo direla eta sustatuko den irudiak berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen pluraltasunaren balioak izango dituela.

Kontratistak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean (Eusko Legebiltzarrak onartua) eta Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu.

Enpresa kontratistak 50 langile baino gehiago baditu, emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat eduki beharko du, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako edukia izango duena.

Kontratua betearaztean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du tratuan, enplegura iristeko prozesuan, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, azkentzean, ordainsarietan, lan-kalitate eta -egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan.

Kontratua betearazteko langile gehiago kontratatu behar badira eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan emakumeen ordezkaritza desorekatua badu, emakumeak kontratatzeari lehentasuna eman beharko dio kontratua betearazteko eta kontratua betearazi bitartean. Emakumeen ordezkaritza edo presentzia % 50etik beherakoa bada, plantilla hori desorekatutzat joko da.

4. Azpikontratistei ordaindu beharra betetzeko baldintzak.

Kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei zor zaizkien ordainketetarako epeak bete beharko ditu, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza igorri beharko diote kontratuaren arduradunari, hark hala eskatzen duenean, azpikontratisten edo hornitzaileen parte-hartzea burutzen denean; bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo horniduraren baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura baldin badute.

Era berean, Udalak hala eskaturik, haiei ordainketak egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, behin prestazioa amaituta, SPKLren 216. artikuluan eta –aplikatzekoa den neurrian– Merkataritza-

eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako legezko ordainketa-epeen barruan.

Betearazpen-baldintza berezi hori betetzen ez bada, karatulan horretarako aurreikusten diren zigorrak ezarriko dira.

45. klausula. Konfidentzialtasuna.

Enpresa kontratistak kontratua betearaztean eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala da. Administrazioak idatzizko baimena eman ezean, kontratistak eta kontratua betearazteko berak izendatutako langileek ezin izango dute beren onurarako erabili, ezta hirugarrenei eman ere, kontratatutako lanei buruzko daturik edo informaziorik, ezta kontratua betearaztean eskura dezaketen informaziorik edo daturik ere. Beraz, eskura dituzten bitarteko guztiak erabili beharko dituzte egindako lanari buruzko informazioak eta lortutako emaitzek konfidentzialak eta isilpekoak izaten jarrai dezaten. Nolanahi ere, datu pertsonalak tratatu beharrik ez dakarten lanak egitean, enpresak eta bertako langileek debekatuta izango dute datu pertsonalak eskuratzea, eta isilpean gorde beharko dituzte zerbitzua ematean langileek ezagutu ahal izan dituzten datuak.

VI. KONTRATUAK ALDATZEA ETA ETETEA

46. klausula. Kontratua aldatzea. (EOren 242. eta 158. art.)

1.- Kontratua burututakoan, interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da hala aurreikusi denean edo, aurreikusi gabeko kasuetan, legean aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean. Hau da:

A) Aurreikusitako aldaketak: (204. artikulua).

Kontratua, indarrean dagoen bitartean, beti aldatu ahal izango da baldin eta karatulan aukera hori aurreikusita badago eta argi, zehatz eta zalantzarik gabe zehaztu bada zein baldintzatan erabil daitekeen aukera hori eta zeintzuk diren aldaketaren norainokoa, mugak eta izaera, bai eta aukera horretaz baliatu ahal izateko baldintzak ere, erreferentzia eginez modu objektiboan egiazta daitezkeen inguruabarrei. Aldaketak ezin izango du berekin ekarri kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk.

Nolanahi ere, kontratua hasierako prezioaren ehuneko hogeira arte baino ezin izango da aldatu.

B) Aurreikusi gabeko aldaketak (205. art.)

Kontratuak SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan baino ezin izango dira aldatu, eta bertan aurreikusitako baldintzak betez gero.

Aurreikusita egon ez arren kontratazio-organoak erabakitzen dituen aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat baldin eta aldaketa horiek, banaka edo denak batera, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20tik gorako aldaketarik ez badakarte, BEZik gabe.

2.- Aldaketaren eraginez obra-unitateak ezabatzen edo murrizten badira, kontratistak ez du batere kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.

3.- Baldin eta, obra-kontratuaren aldaketak direla-eta, proiektuan aurreikusita ez zeuden obra-unitateak sartu behar badira edo horien ezaugarriak proiektuan ezarritakoak ez bezalakoak badira, eta beste lizitazio bat egin beharrik ez badago, Administrazioak finkatuko ditu aplikatu beharreko prezioak. Hala ere, aurretik kontratistari gutxienez hiru egun balioduneko entzunaldia emango zaio. Kontratistak finkatu diren prezioak onartzen ez dituenean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontratatu ahal izango ditu aldaketok, finkatutako prezio horietan, edo zuzenean betearazi ahal izango ditu, edo kontratua suntsiarazi ahal izango du.

4.- Obra-zuzendari fakultatiboak, proiektua aldatu beharra ikusten badu, baimena eskatuko dio kontratazio-organoari, dagokion espedientea hasteko. Espedientea presaz gauzatuko da jarduketa hauek eginez:

a) Proiektuaren aldaketa idatziz eta onespen teknikoa emanez.

b) Kontratistari eta proiektuaren idazleari entzunez, gutxienez hiru egunez.

c) Kontratazio-organoak espedientea eta beharrezko gastu osagarriak onartuz.

5. 5. Hala eta guztiz ere, honako hauek ez dira aldaketatzat joko:

i. Neurketak gehiegizkoak izatea, halakotzat ulerturik obra behar bezala egiten den bitartean egiazki gauzatutako unitateen kopuruaren eta proiektuaren neurketetan aurreikusitako kopuruaren artean izaten den aldea soilik, betiere orokorrean ez dutenean egiten hasierako kontratuko prezioaren ehuneko 10etik gorako gastu-igoera. Neurriak gehiegizkoak izate hori obra-bukaeraren ziurtagirian jaso beharko da.

ii. ii. Prezio berriak sartzea, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako prozeduren bidez kontraesanez finkatutakoak, baldin eta prezio berri horiek kontratuaren prezio orokorraren igoerarik ez badakarte eta obra-unitateetan hasierako aurrekontua guztira ehuneko 3 gainditu gabe eraginik ez badute.

6.- Aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat, kontratistari entzun ondoren erabakiko dira, eta administrazio-agiri batean formalizatu beharko dira, behin betiko bermea doitu ondoren, hala badagokio.

47. klausula. Obrak etetea.(SPKLren 208. art. eta EOren 103. art.)

Administrazioak, interes publikoko arrazoiengatik, kontratuaren betearazpena etetea erabaki ahal izango du. Era berean, SPKLren 198.5 artikuluan adierazitako egoera gertatzen bada, kontratua eten egingo da. Kontratua eteteko, SPKLren 208. artikuluak eta HAKLEOko prezeptu konkordanteek diotenari jarraituko zaio.

Baldin eta Administrazioak erabakitzen badu kontratua etetea, edo SPKLTBren 216.5 artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik eteten bada, akta bat egin beharko da, eta bertan zehaztuko da zein inguruabarrek sorrarazi duten egoera hori eta nolako egoeran geratu den kontratuaren betearazpena. Akta hori kontratazio-organoaren ordezkari batek, kontratistak eta obraren zuzendariak sinatu beharko dute, eta akta horri betearazitako obraren neurketa erantsi beharko zaio, bai eta obran bertan pilatuta dauden materialak ere; material horiek etenda geratu den obra-zatian edo obra-zatietan bakarrik erabili ahal izango dira.

Baldin eta Administrazioak erabakitzen badu kontratua etetea, edo SPKLren 198.5 artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik eteten bada, akta bat egin beharko da, Administrazioak kontratistari ordainduko dizkio hark benetan jasandako kalte-galerak, aipatutako 208. artikuluan ezarritako arauak betez.

VII. KONTRATUEN LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

48. klausula. Kontratuak lagatzea.

1. Adjudikaziodunak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira izan kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarriak, SPKLren 214.2 artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badira eta lagapenak ez badu eragiten merkatuan lehiaren egiazko murrizketa.

Ezin izango da baimendu lagapena hirugarren bati egitea, horrek kontratistaren ezaugarrietan funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak baldin badira.

2. Kontratua lagatzeko baldintzak honako hauek dira:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gutxienez betearazita izan behar du. Baldintza hori ez da aplikatzekoa izango baldin eta lagapena gertatzen bada kontratista konkurtsoan dagoela, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan, edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi bazaio negoziazioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat lortzeko edo hitzarmen-proposamen aurreratu baterako atxikipenak lortzeko konkurtsoei buruzko legerian ezarritako baldintzetan.

c) Lagapen-hartzaileak Administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, kontratua betearazteko fasearen arabera eskatzekoa zaion kaudimena izan behar du; gainera, behar bezala sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta ez dio eragin behar kontratatzeko ezein debekuk.

d) Adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da.

3. Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztien subrogazioa jasoko du lagapen-hartzaileak.

4. Kontratua lagatzeko prozedura honako hau izango da:

a) Kontratistak idazki bat bidaliko dio kontratuaren arduradunari, eta haren bidez baimena eskatuko dio lagapena egiteko. Eskabide horrekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a. -Kontratua lagatzeko eskatzea ahalbidetzen duen inguruabarraren egiaztagiria.

b. Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluko c) letran jasotako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

b) Kontratuaren arduradunak egindako txostena, gutxienez kontratuaren zenbatekoaren % 20 bete izanaren betekizuna bete behar den ala ez adierazten duena, eta, hala bada, betekizun hori betetzen den ala ez adierazten duena. Era berean, adierazi beharko du errespetatu egiten direla SPKLren 214. artikuluko 1. apartatuko bigarren paragrafoan jasotako mugak.

c) Txosten juridikoa.

d) Fiskalizazio ekonomikoari buruzko txostena

e) Kontratazio-organoaren ebazpena, lagapena egiteko eta kontratistari jakinarazteko baimena ematen duena.

f) Lagapena baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean.

g) Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

h) Lagapen-hartzaileak bermea gordailutzea Bilboko Udaleko Diruzaintzan. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko lagapen-hartzailearena formalki eratu arte.

49. klausula. Azpikontratatzea. (215. art.)

1 Kontratistak hirugarrenekin itundu ahal izango du prestazioaren parte bat ematea, baldintza-agirietan xedatutakoari lotuta, salbu eta, karatulako 214.2 artikuluko d) eta e) letretan ezarritakoaren arabera, eta espedientean horrela justifikatzen bada, kontratistak prestazioa edo horren zati bat zuzenean exekutatu behar duela xedatzen badu.

2. Azpikontratuak egiteko, betekizun hauek bete behar dira:

a) Karatulan edo espedienteko dokumentuetan hala eskatzen bada, lizitatzaileek kontratuaren zer atal azpikontratatzeko asmoa duten zehaztu behar dute eskaintzan. Kontratuaren atal horren zenbatekoa ere adierazi behar dute, eta lizitatzaileak obra egiteko aginduko dien azpikontratisten izena edo enpresaburu-profila ere eman behar dute, gaitasun profesional edo teknikoen baldintzen arabera zehaztua.

Kasu horretan, azpikontratuak ez badatoz bat eskaintzan adierazitakoarekin, ezin izango dira egin jakinarazpena egiten dutenetik eta hurrengo apartatuan aipatutako justifikazioak aurkezten dituztenetik hogei egun igaro arte, salbu eta administrazioak aurretik berariazko baimena ematen badu edo justifikatutako larrialdi-egoera gertatzen bada, betiere administrazioak ez badu epe horretan jakinarazten aurka dagoela.

b) Dena dela, kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta beranduenez hura betearazten hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa

duela, eta prestazioaren zer zati azpikontratatu nahi duen aipatuko du, bai eta azpikontratatzailearen izena, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak ere, eta behar beste justifikatuko du azken horrek gaitasuna duela hura betearazteko, dituen elementu teknikoak eta giza elementuak eta esperientzia aipatuta.

Era berean, egingo den azpikontratuaren berri emateko Administrazioari igorriko zaion idazkiarekin batera, kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik SPKLren 71. artikuluaren arabera. Egiaztapen hori azpikontratistaren erantzukizunpeko deklarazioaren bidez gauzatu ahal izango da.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia betearazten den bitartean informazio horretan gertatzen den aldaketa oro, bai eta azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia ere.

3. Baldintza horiek urratuz gero, edo azpikontratistaren gaitasuna egiaztatu ez bada, edo larrialdi-egoera dakarten inguruabarrak edo azpikontratazioa presaz egin beharra dakarten inguruabarrak egiaztatu ez badira, ondorio hauetako bat izango da SPKLn ezarritakoen artean, kontratuaren betearazpenak daukan eraginaren arabera:

a) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren % 50erainoko zigorra ezarri ahal izango zaio.

b) Kontratua suntsiarazi ahal izango da, baldin eta SPKLren 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letrako bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

4. Azpikontratistek kontratista nagusiari dagokionez baino ez dituzte betebeharrak izango, eta kontratista nagusiak bereganatuko du, beraz, Administrazioarekiko erantzukizun osoa kontratua betearazteko.

5. Kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan-legeriarekin bat etorriz.

6. Azpikontratistek ez dute administrazio kontratatzailearen aurkako zuzeneko akziorik izango kontratu nagusia eta azpikontratuak betearaztea dela-eta kontratistak haiekin hartutako betebeharrengatik.

Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzea (216. art.)

Kontratistak azpikontratistei edo hornitzaileei prezio itundua ordaintzeko betebeharra du, ondoren zehaztutako epe eta baldintzetan, baina horiek ezin izango dira kaltegarriagoak izan abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoak baino –lege horren bidez merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dira–.

Berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, karatulak hala xedatzen badu, azpikontratistei zuzeneko ordainketak egiteko aukera aurreikusi ahal izango da.

VIII. KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratuak bete direlako edo suntsiarazi direlako azkenduko dira.

50. klausula. Kontratua betetzea.

Kontratistak kontratuaren objektua kontratuko baldintzen arabera eta Administrazioaren nahierara osorik betearazten duenean joko da kontratua betetzat.

51. klausula. Obrak hartzea (243. art. eta 163.etik 165.era bitarteko art., EO)

Obra bakoitza amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan hartuko da obra hori, egintza formal baten bidez.

Harrera-egintzan honako hauek egongo dira: Administrazioak kontratuaren arduradun gisa izendatutakoa, hala badagokio, edo Administrazioak horretarako izendatutako fakultatibo bat, bai eta Kontu-hartzailetza Nagusiaren ordezkari bat ere, hala badagokio, obren zuzendaritzaz arduratuko den fakultatiboa eta kontratista, egoki baderitzo, bere fakultatiboaren laguntzarekin.

- Obrak egoera onean badaude eta emandako aginduen arabera egin badira, Administrazioaren ordezkariak hartutakotzat joko ditu; harrera-akta egingo da, eta orduan hasiko da berme-epea.

- Alabaina, obrak ez badaude hartzeko moduan, halaxe adieraziko da aktan, obra-zuzendariak sumatutako akatsak adieraziko ditu eta beharrezko diren jarraibideak ere zehaztuko ditu, bai eta akatsak zuzentzeko epe bat ere. Epe hori amaitutakoan kontratistak ez badu zuzenketarik egin, bi aukera izango dira orduan: beste epe bat eman, luzaezina izango dena, edota kontratua suntsiarazi dela deklaratu.

Espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoiak agertzen badira, kontratazio-organoak erabaki ahal izango du obrak benetan okupatzea edo obra horiek erabilera publikorako martxan jartzea, nahiz eta harrera-egintza formalki beteta ez egon. Halako kasuetan, obrak benetan okupatzen edo martxan jartzen diren unetik bertatik sortuko dira harrera-egintzari dagozkion efektuak eta ondorioak.

Hala ere, Administrazioaren ordezkariaren txostenaren arabera akastunak edo amaitu gabeak diren obrak benetan okupatzeak edo zerbitzuan jartzeak edo behin-behinean erabiltzeak ez dakar berekin obrak hartzea, eta ez ditu eragingo harrera-egintzari dagozkion efektuak eta ondorioak.

52. klausula. Obra-bukaeraren ziurtagiria (SPKL, 243. art.)

Kontratazio-organoak hiru hilabeteko epea izango du, obra-harreraren aktako datatik aurrera, egindako obren bukaeraren ziurtagiria onartzeko. Obra-bukaeraren ziurtagiria kontratuaren likidazioaren kontura ordainduko zaio kontratistari.

53. klausula. Obraren likidazioa (SPKLren 243. artikulua eta Erregelamendu Orokorraren 169. artikulua)

Hurrengo klausulan aipatzen den berme-epea bete aurreko hamabost eguneko aldian, obraren zuzendari fakultatiboak, ofizioz edo kontratistaren eskariz, txosten bat idatziko du obren egoerari buruz. Txosten hori aldekoa bada, zuzendariak likidazio-proposamena egingo du hilabeteko epean, eta likidazio-proposamen hori kontratistari jakinaraziko zaio, hamar eguneko epean adostasuna eman dezan edo egoki iritzitako eragozpenak adieraz ditzan.

Kontratazio-organoak hirurogei eguneko epea izango du, kontratistak erantzuten duenetik edo horretarako duen hamar eguneko epea amaitzen denetik aurrera, likidazioa onartzeko eta, hala badagokio, likidazioaren ondoriozko saldoa ordaintzeko.

54. klausula. Berme-epea.

Kontratuaren objektuak gutxienez urtebeteko berme-epea izango du obren harrera-datatik aurrera, salbu eta karatulan edo adjudikaziodunaren eskaintzan epe luzeago bat aurreikusten denean. Epe horretan, Administrazioak egiaztatu ahal izango du egindako lana bat datorrela kontratatutakoarekin eta baldintza-agiri honetan ezarritakoarekin.

Berme-epearen barruan, kontratista behartuta egongo da obren betearazpenean aurkitzen diren gabezia guztiak bere kontura konpontzera. Horrek ez du eragotziko gabezia horien erantzukizunetik eratortzen diren ondorioei aurre egin beharra, baldintza-agiri honetan eta SPKLren 243. artikuluan ezarritakoaren arabera.

55. klausula. Behin betiko bermea itzultzea edo ezereztea.

Kontratistak kontratutik eratorritako betebeharrak bete ondoren, behin betiko bermearen bidez ordaindu beharreko erantzukizunik ez badago, eta berme-epea igaro ondoren, hala badagokio, bermea itzultzeko edo ezerezteko erabakia hartuko da.

Kontratuaren zati baten harrera bakarrik egiten denean, kontratistak aurretiaz hala eskatzen badu, baimenduko da bermearen hein bereko zatia itzultzea edo ezereztea.

Kontratua amaitzen denetik urtebete igarota, eta berme-epea amaituta, kontratistari egotz ezin dakizkiokeen kausak direla medio ez jasotzeko egintza formalik eta ez likidaziorik egin ez bada, itzuli edo ezereztu egingo dira bermeak, SPKLren 110. artikuluan aipatutako erantzukizunei aurre egin zaiela egiaztatu ondoren. Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000,00 eurotik beherakoa bada eta kontratista enpresa txiki edo ertain bat bada, SPKLren 111.5 artikuluan jasotako erreferentzien arabera definitua, aipatu den urtebeteko epea sei (6) hilabetera murriztuko da.

56. klausula. Kontratua suntsiaraztea.

Kontratua suntsiarazteko kausak SPKLren 211. artikuluan (a-i bitarteko letrak) eta 245. artikuluan adierazitakoak eta baldintza-agiri honen karatulan aurreikusitakoak dira.

SPKLren 211.2 artikuluaren arabera, kontratua suntsiarazteko kausa bat baino gehiago dagoen kasuetan, azkentzearen ondorio ekonomikoak direla-eta ondore desberdinak dituztenak, denboran lehenengo agertu direnei erantzun beharko zaie.

Kontratua suntsiarazteko erabakia kontratazio-organoak hartuko du, SPKLren 212.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, erregelamenduz ezarritako moduan izapidetutako prozeduraren bidez.

Kontratistaren erruz kontratua bete gabe gelditu eta suntsiarazten bada, bahitu egingo zaio bermea, eta, gainera, sortutako kalte-galeren kalte-ordainak eman behar dizkio Administrazioari, bahitutako bermearen gainetik doan zenbatekoraino. Kontratazio-organoak zehaztuko du, erabaki arrazoitu baten bidez eta kontratistari entzun ondoren, zeintzuk diren kontratistak ordaindu beharko dituen kalte-galerak; horretarako, beste faktore batzuen artean, proiektatutako inbertsioaren atzerapena eta Administrazioari eragindako gastu handiagoak hartuko dira kontuan.

Suntsiarazteko kausak aplikatzeko, SPKLren 212. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, eta, ondorioei dagokienez, SPKLren 213. eta 246. artikuluetan xedatutakoari, eta, hala badagokio, erregelamenduzko garapenean xedatutakoari.

IX. DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO NEURRI TEKNIKOAK, ADMINISTRATIBOAK ETA ANTOLAMENDUKOAK

57. klausula. Datu pertsonalen tratamenduak

Entitate adjudikaziodunak datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, zeinaren bidez datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen baititu eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteari buruzko erregelamendu orokorra) indargabetzen baitu, eta orobat Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Datuak tratatzean gardentasun-printzipioa betetzea

Aditzera ematen da, alderdiak lotzen dituen harreman juridiko edo administratiboan zehar, alderdi bakoitzak emandako harremanetarako datu pertsonalak eta entitate kontratistaren eta lizitatzaileen datu pertsonalak lizitazio hau kudeatu eta ebazteko, kontaktua eta komunikazioa mantentzeko eta ezarritako harremana kudeatzeko tratatuko direla. Tratamendu hori alderdien arteko harreman juridiko edo administratiboan oinarrituko da.
Ez da aurreikusten hirugarrenei datu horiek lagatzerik, ezta nazioarteko datu-transferentziarik ere.
Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako eskubideez helbide honetan baliatu ahal izango dira: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 48007 Bilbo (Bizkaia). Informazio gehiago nahi izanez gero, mezu elektroniko bat bidal dezakezu (datos@bilbao.eus), datu pertsonalen tratamendu honi buruzko informazio gehiago eskatzeko.

Zerbitzua ematean datu pertsonalak tratatzen badira, gainera, klausula honetan adierazitakoa ere bete beharko du entitate adjudikaziodunak.

Tratamendua eragitearen xedea

Adjudikazioa ematen zaion entitatea tratamendu-eragilea izango da, eta gaitasuna eman zaio kontratuaren xede den zerbitzua emateko behar diren datu pertsonalak trata ditzan Bilboko Udalaren (tratamenduaren arduraduna) kontura. Datu horiek "Erantzukizunpeko adierazpena eta datuen babesari

buruzko eranskina" dokumentuan zehaztuko dira, eta adjudikaziodunarekin sinatu beharreko obra-hasierako aktarekin batera sinatu beharko da.

Eraginpeko informazioa identifikatzea

Kontratazioaren baldintza-agiriaren objektua betetzetik eratortzen diren prestazioak betetzeko, Bilboko Udalak "Erantzukizunpeko adierazpena eta datuen babesari buruzko eranskina" dokumentuan deskribatutako informazioa jarriko du adjudikazioa ematen zaion entitatearen (tratamendu-eragilea) eskura.

Iraupena

Klausula honetan adierazitakoa alderdiak lotzen dituen harremanak dirauen bitarte guztian egongo da indarrean, edota legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan. Hori ez da eragozpen izango egokitzat jotzen diren aldizkako berrikuspenak egin daitezen tratamendu-eragilearen esku ipini diren datuak eta informazioa berrikusteko eta egiaztatzeko.

Aipatu den harremana amaitzen denean, entitate adjudikaziodunak ezabatu egin beharko ditu datu pertsonalak, eta horretarako tratamendu-eragilearen betebeharrei buruzko hurrengo apartatuan ezarritakoari jarraitu behar zaio; nolanahi ere, ez du inolako kopiarik gorde behar, salbu eta Bilboko Udalak baimen espresa ematen duenean.

Tratamendu-eragilearen betebeharrak

Entitate adjudikaziodunak eta, hala badagokio, haren mendeko langileek betebehar hauek izango dituzte:

a. Tratatzen dituzten datu pertsonalak edo prozesuan biltzen dituztenak baldintza-agiri honen xederako bakarrik erabiltzea. Datuak ezin izango dira inolaz ere xede propioetarako erabili.

b. Datuak Bilboko Udalak emandako jarraibideen arabera tratatzea.

c. Idatziz jasotzea tratamendu-jardueren erregistro bat, Bilboko Udalaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztiak biltzen dituena. Erregistro horrek honako hauek zehaztuko ditu:
   - Entitate adjudikaziodunaren eta, hala badagokio, datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak.
   - Bilboko Udalaren kontura egindako tratamenduen kategoriak.
   - Segurtasunari buruzko neurri tekniko eta antolakuntzakoen deskribapena, egokia bada halako neurriak aplikatzea, honako hauen ingurukoak:
     - Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratzea.
     - Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko gaitasuna.
     - Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzeko gaitasuna.
     - Tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolakuntzakoen eraginkortasuna aldian-aldian egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesua.

d. Lagapenak eta erabiltzaileen datuak: Hirugarren pertsonei edo entitateei, oro har, ezin izango zaie daturik jakinarazi, salbu eta legitimazioa duten hirugarrenek ordezkaritza eta defentsa judizialaren eremuan jakin beharreko informazioa.

e. Azpikontratatzea: Debekatuta dago erabaki honen xedearen parte diren prestazioak azpikontratatzea.

f. Kontratazio-prozesu honen bidez eskuratutako datu pertsonalei buruz sekretua gordetzeko eginbeharra betetzea, baita prozesuaren xedea amaitu ondoren ere.

g. Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsona guztiek konpromisoa hartzen dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta segurtasun-neurriak betetzeko. Betebehar hori betetzen dutela egiaztatzen duen dokumentazioa Bilboko Udalaren eskura jarri beharko dute.

h. Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten entitate adjudikatzaileko langileek badutela datu pertsonalen babesaren arloan beharrezkoa den prestakuntza.

i. Bilboko Udalari laguntzea eskubide hauen erabilerari erantzuten: datuak irispidean izatekoa, zuzentzekoa eta ezereztekoa eta tratamenduari aurka egitekoa; tratamendua mugatzekoa; banakako erabaki automatizatuen xede ez izatekoa (profilak egitea barne hartuta) eta, hala badagokio, datuak transferitzekoa. Entitate adjudikaziodunak eskubideak baliatzeko eskaerarik jasotzen badu arduradunaren datu-tratamenduari dagokionez, gehienez ere 48 orduko epean jakinarazi beharko dio Bilboko Udalari.

j. Bilboko Udalari dagokio interesdunei informazio-eskubidea bermatzea. Horrenbestez, entitate adjudikaziodunak ez du bere informazio-eredu propiorik eskainiko, eta, hala badagokio, Bilboko Udalak eskaintzen dituenak erabili edo eskatu egingo dizkio baldin eta datuak biltzeko edozein bitarteko edo kanaletan txertatu behar badira.

k. Datuen segurtasun-arrakalak jakinaraztea: Entitate adjudikaziodunak Bilboko Udalari jakinaraziko dizkio, bidegabeko atzerapenik gabe eta, nolanahi ere, 24 orduko gehieneko epea baino lehen, ezagutzen dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketak, bai eta gertakaria dokumentatzeko eta jakinarazteko behar den informazio garrantzitsu guztia ere (zehazki, intzidentziaren deskribapena eta izan ditzakeen ondorioak, intzidentziaren kategoria eta eragindako pertsonen gutxi gorabeherako kopurua, intzidentzia leheneratzeko eta arintzeko hartutako neurriak). Horretarako, mezu elektronikoa bidaliko dio kontratuaren objektua betearazteko eta/edo gainbegiratzeko arduradunari.
Ez da jakinarazpenik egin beharko, baldin eta segurtasunaren urraketa horrek pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako arriskurik ekartzea aski gertagaitza bada.

l. Bilboko Udalari laguntzea datuak babesteari buruzko inpaktu-ebaluazioak egiten, hala badagokio.

m. Bilboko Udalari laguntzea kontrol-agintaritzari aldez aurreko kontsultak egiten, hala badagokio.

n. Bilboko Udalaren eskura jartzea betebeharrak betetzen dituela frogatzeko behar den informazio guztia, bai eta Bilboko Udalak edo berak baimendutako beste auditore batek auditoriak edo ikuskapenak egiteko behar dena ere.

o. Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun, trazabilitate eta erresilientzia iraunkorrak bermatuko dituzten segurtasun-neurriak ezartzea. Orobat ezarriko dira, gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzeko aukera ematen dutenak eta tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolakuntzakoen eraginkortasuna aldian-aldian egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko aukera ematen dutenak. Hori ez da eragozpena izango beste batzuk ere ezartzeko, baldin eta onartutako estandarren arabera inplementatu edo adostu ahal badira alderdien artean jarraibideen bitartez, eta, gainera, helburu horretarako ziurtagiri eta egiaztagirien bidez frogatu ahal badira. Zehazki, obra-hasierako aktarekin batera sinatu beharreko “Erantzukizunpeko adierazpena eta Datuak babesteko eranskina” izeneko dokumentuan zehaztutako segurtasun-neurriak ezarri beharko dira, gutxienez.

Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren 2.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, adjudikaziodunak beharrezko segurtasun-neurriak ezarri

beharko ditu kontratistek emandako zerbitzuen kontratu honen objektuaren arabera datu pertsonalei egindako tratamendua Segurtasunaren Eskema Nazionalarekin bat datorrela bermatzeko. Segurtasunaren Eskema Nazionalarekiko adostasun-adierazpenak edo -ziurtagiriak erakustea nahikoa izango da adostasun hori bermatzeko. Egiaztapena entitate kontratatzaileak egingo du, aipatutako errege-dekretuaren 38. artikuluan xedaturikoaren arabera.

311/2022 Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean kontratistarentzat ezarritako egokitzapen-epea amaitu arte, entitate kontratatzaileak segurtasun-neurri tipo batzuk ezartzen ditu, zerbitzuen arabera sailkatuta, eta entitate adjudikaziodunak, gutxienez, horiek egiaztatu beharko ditu.

p. Datuak zertarako erabiliko diren: Entitate adjudikaziodunak, behin prestazioa amaitutakoan, Bilboko Udalari itzuli beharko dizkio datu pertsonalak eta, hala balegokio, datuak jasota dauden euskarriak. Datuak itzultzean, guztiz ezabatu beharko dira entitate adjudikaziodunak erabilitako informatika-ekipoetan dauden datuak.

X. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK, ERREKURTSOAK ETA DEUSEZTATZE-KAUSA

58. klausula. Administrazioaren prerrogatibak.

Kontratazio-organoak administrazio-kontratuak interpretatzeko perrogatiba dauka, bai eta kontratu horiek betetzean sortzen diren zalantzak ebazteko ere. Era berean, interes publikoko arrazoiengatik, kontratuak aldatu ahal izango ditu, eta orobat erabaki ahal izango du kontratuak suntsiaraztea eta suntsiarazte horrek zer ondorio ekarriko duen zehaztea, betiere indarrean dagoen legerian ezarritako mugen barruan eta baldintza eta ondorioei lotuta.

Kontratazio-organoak erabakirik hartzen badu kontratuak interpretatu, aldatu eta suntsiarazteko prerrogatibez baliaturik, halako erabakiak berehala betearaztekoak izango dira.

59. klausula. Kontratazio-arloko errekurtso berezia.

Kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal zaien kontratuen kasuan, SPKLren 44.2 artikuluan aipatutako egintzei administrazio-errekurtso berezia jarri ahal izango zaie, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik.

Administrazio-errekurtso berezia aurkeztea aukerakoa izango da, eta errekurtso hori jartzeko epea 15 egun baliodun izango da. Epe hori SPKLren 50. artikuluan ezarritakoari jarraikiz zenbatuko da.

Nahitaezkoa da errekurtsoa jartzeko idazkia toki hauetako batean aurkeztea:

- kontratazio-organoaren erregistroan (Bilboko Udalaren Erregistro Orokorra: Ernesto Erkoreka plaza, z.g., 48007, Bilbo)

- edo errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan (Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren erregistroa: Donostia - San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria -Gasteiz).

-edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako tokietan.

Kontratazio-agiri europar bakarra (KAEB) aurkeztuko da, hau da, enpresa interesdunaren adierazpen formala eta eguneratua. Dokumentu hori Kontratazio-agiri europar bakarraren formulario normalizatua ezartzen duen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Erregelamenduaren bidez onartu zen.

Hura betetzeko jarraibideak baldintza-agiri honen XV. eranskinean ezarri dira.

Idazkiak lehenengo apartatu bietan adierazitakoez bestelako erregistroetan aurkezten badira, berehala eta ahalik eta azkarren jakinarazi beharko zaizkio Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoari.

Errekurtsoa jartzeko idazkian, honako alderdi hauek adierazi beharko dira: errekurtsoa zer egintzari jartzen zaion, errekurtsoa jartzeko arrazoia zein den, errekurtsogileak zer froga-bitarteko erabili nahi dituen eta, hala badagokio, SPKLren 49. artikuluan aipatutakoen moduko zer neurri ezartzeko eskatzen den.

Idazki horrekin batera, honako hauek aurkeztuko dira:

a) Agertutako alderdiaren ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua, salbu eta organo beraren aurrean ebazteke dagoen beste errekurtso baten jarduketei lotuta badago; kasu horretan, ziurtagiria emateko eskatu ahal izango da prozedurari eransteko.

b) Auzi-jartzailearen legitimazioa egiaztatzen duen dokumentua edo dokumentuak, legitimazio hori beste batek eskualdatu badio jaraunspenez edo beste edozein tituluren bidez.

c) Errekurtsoa jartzen zaion egintza espresuaren kopia edo helarazpena, edota zehaztea zein espedientek jasotzen duen edo zein egunkari ofizialetan edo kontratatzailearen profiletan argitaratu den.

d) Bere eskubidea oinarritzeko duen dokumentua edo dokumentuak.

e) «Gaitutako» helbide elektroniko bat, komunikazioak eta jakinarazpenak bertara bidaltzeko, hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

60. klausula. Berraztertzeko errekurtsoa

Administrazio-kontratuak adjudikatzeko prozeduren barruan ematen diren egintzei, baldin eta haien aurka errekurtso berezirik ezin bada jarri, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaie hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

BILBOKO UDALEKO KONTRATAZIOKO ZUZENDARITZA

Baldintza-agiri honek Udal Kontu-hartzailetzaren eta Udal Aholkularitza Juridikoaren titularraren irizpena jaso zuen eta Hiriko Gobernu Batzarrak 2018ko maiatzaren 2an onartu zuen.

Baldintza-agiri hau egokitu da Administrazio digitalaren, sektore publikoko kontratazioaren eta telekomunikazioen arloan segurtasun publikoko arrazoiengatik premiazko neurriak onartzen dituen urriaren 31ko 14/2019 Errege Lege Dekretuak 9/2017 Legean sartutako aldaketetara.